

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ez dute obedituko, ez dira isilik egongo

MIKEL ZUBIMENDI > 11

PROSTITUZIOA: Itzaleko ofizioa izan denak arrasto propioak izan ditu Euskal Herrian > 12

2014ko apirilaren 12a | VIII. urtea • 361. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



LURRIKAREKIN BIZITZEN IKASIAK

> 7 Patricio BANDA | AFP

4



Hauteskundeek ez dute afganiarren bizitza hobetuko 04

Lurrikaren ondorioak saihesten ikasi dute Txilen 07

Prostituzioa, betidanik existitu arren existitu ez balitz bezala tratatzen den ofizioa 12

12



17



Arteterapia, hitzen bidez adierazi ezina azaleratuz 17

e.lkarrizketa: Idoia Labaien 22

Ikastetxe eroso eta seguruagoa behar dute Lizartzan 26

In Fraganti: Maite Larburu, biolin jotzailea eta kantaria 28

22



28



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** «Think global, act local»

10 **Unai Fdez. de Betoño:** Azkunaren hirigintza-ondarea

11 **Mikel Zubimendi:** Ez dute obedituko, ez dira isilik egongo

16 **Josu Imanol Unanue:** Diru barik ezer egiterik ba al da?

20 **Gorka Zozia:** Bizi-itxaropena

21 **Kattalin Miner:** Bidaiariaren pribilegioak

25 **Iker Barandiaran:** Nagusitan

31 **Iratxe Esnaola:** Gaztetxoak, Internet eta lege urratzeak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

KULTURAREN ERKUNTZA ERKUNTZAK
GIZATIAZ LAGUNTUTAKO HEDABIDEA

{ datorrena } **Gorka
Elejabarrieta**

«Think global, act local»

Nazioarteko egoera eta dinamika politikoei berebiziko garrantzia eta eragina daukate norberak erabaki behar dituen norabide eta apustu estrategikoak zehazterako orduan. Sobietar Batasunaren erortzeak, Europan bertan estatu independente ezberdin berrien sorrerak eta hainbat gatazka politikoren konponbideak edo konponbide prozesuen hasierak egoera berri bat ekarri zuten Euskal Herrira goeko hamarkadan, eta eragin handia izan zuen horrek gure herriak hartuko zituen bide berriengan. Ameriketako Estatu Batuek 2000. urtetik aurrera “terrorismoaren aurka” bultzatu zuten eta estatu gehienek jarraitu eta bere barne egoeren kudeaketarako erabili zuten politika errepresibo berriak, edo berrindartuak, denok dakizkigun ondorioak ekarri zituen gurera ere.

Nazioartekoaren eta bertakoaren arteko harremana eta eragina gero eta nabarmenagoa da. Gure bizimoduaren eragina duten erabakiek gero eta urrunago dute jatorria, eta, era berean, gero eta gertuago bizi ditugu erabakion ondorioak. Gardentasun eta irizpide demokratiko ororen aurka, gero eta zailagoa da erabaki horiek nork, non eta nola hartzen dituen jakin eta ulertzea. Gure kasuan, herriarren eskututik eta kontrol demokratikotik gero eta urrunago dagoen Europar Batasunaren jardun neoliberala da egun bizi dugun egoera latzaren jatorri nagusietako bat. Eta krisi sistemiko honen arduradunak dira, paradoxikoki, “konponbidea” ekarriko duen bidea erabaki behar dutenak. “Astoa, zaldiz jantzi arren, beti asto” dio esaera zaharrak, eta krisia, krisia bera eragin duten politika neoliberaletan konpondu nahiak argi adierazten du noren zerbitzuan eta noren kontra dabilzan troika zuzentzen duten mandataria.

Itxura bipartidista eta helburu bakarra duen klase politiko eta finantzarioaren aurrean alternatiba errealek eraiki behar ditu Europako ezkerak. Norbere esparruan eta errealtatean eragin eta argazki osoa kontuan hartu, globalizazioaren kontrako mugimenduan horren ezaugarri egin zen aldarri hura praktikan jarritz: *Think global, act local*. Bide horretan sakondu eta pesimismo oroko-

rretik aldenduz badira esperantzarako arrazoiak ere. Ezkerak duen babesa handituz doa Europako hainbat herrian, eta, babesa handitzearekin batera, ezker behinagoz bere burua egoera “postsobietar” berrira egokitzeko berrasmatu eta berrantolatzea lortzen ari da, eragile eraginkorragoak sortuz eta bultzatuz. Ezker horren aldarri nagusietako bat subiranotasun nazionalari oso loturik dago, bai Europako hegoaldean –krisiaren beraren jatorrian eta kudeaketan pairatutako kanpo injerentzien ondorioz–, bai Europako iparraldean ere. Izan ere, azken finean, ezker mugimenduen jardunaren muinean dagoen eskaera eta printzipioa da.

Herrien arteko elkarlana, kooperazioa eta internazionalismoa lehenesten dute mugimenduok, baina herri bakoitzaren askatasun eta subiranotasuna errespetatuz eta aldarrikatuz. Herrien arteko errespetuan oinarritu beharreko nazioarteko harreman eredu eta jardun berri bat

Herrien arteko elkarlana, kooperazioa eta internazionalismoa lehenesten dute, baina herri bakoitzaren askatasun eta subiranotasuna errespetatuz eta aldarrikatuz

aldarrikatzen dute, guztientzat onuragarria izango dena, gehiengoaren interesak defendatuko dituen baina gutxiengoaren ere errespetatuz. Herriarren eta herrien mesederako, edo, nahiago bada, alderantziz, herrien eta herriarren mesederako. Kolektiboa eta norbanakoa. Ezkerreko alderdien aldarri horri oso loturik agertzen dira estaturik gabeko herrien borrokak. Zentzu horretan, Eskoziako eta Erresuma Batuko hainbat ezkeriar ez abertzalek eskoziar independentziaren alde harturiko jarrera oso adierazgarria da. Katalunian ere antzeko fenomeno gertatzen ari da, helburu abertzalea izatetik harago, independentzia gizarte eredu berri eta justuago bat modu eraginkorragoan lortzeko bide bihurtuz.

Ezker abertzaleak azken urteotan martxan jarritako eta uneotan garatzen ari den prozesu berria ere nazioarteko agertoki politiko jakin batean gertatu da. •

Alternantzia, txandaketa, hori omen da orain Afganistanek nahitaez lortu beharrekoa, noiz-bait bakean bizi nahi badu. Hilaren 5ean egin ziren presidentetzarako hauteskundeek garrantzia nabarmendu dute hedabide nagusiek eta Mendebaldeko agintariek: bozketak horren emaitzen eta eragile ezberdinen erreakzioen arabera, izango omen da Afganistanen etorkizuna.

Oraindik ez dira emaitzak ezagutzera eman (apirilaren 24rako iragarri dituzte) eta ikusteko dago zer erreakzio izaten duten galtzaileek. «Hauteskunde pro-

Ez da harritzekoa Mendebaldeak botila erdi beteta ikusi nahi izatea. Sekulako inbertsio militarra egin dute Asiako herrialde pobretuan, tropa eta ekipamendu asko bidali dute bertara, hildako asko eragin dituzte, demokraziaren izenean.

Afganiar agintari berriek herrialdea aurrera ateratzeko gauza direla konbentzitu nahi gaituzte AEBek, beraien jarduera (inbasioa eta urte askotako okupazioa) justifikatu nahian.

Baina oraindik ez da ikusten egonkortasunaren tankerako ezer azken hamarkadotan gerra besterik ezagutu ez duen herrialdean. Eta 200 hildako eragin dituzten borroken erdian

egindako hauteskundeak ezin dira fidagarriak izan, ezin dute Afganistango herritarren benetakako borondatea azaldu, egoera horretan botoa askatasun osoz ematea ezinezko baita. Nola eraiki etorkizun baketsua gizartearen zati baten aurkako borrokaren erdian?

Hamid Karzai presidenteak bi agintaldi egin ditu karguan eta ezin du hirugarrenerako aurkeztu, Konstituzioaren arabera. Beraz, teorian une honetan lehen aldiz hautestontzien bitartez aldatuko da presidentea. Horri esaten diote «alternantzia», baina GAUR8ko irakurleek badakite kargu horretan dagoen pertsona bat kendu eta beste bat

jartzeak ez duela, berez, inolako aldaketarik bermatzen, ustelkeria ez duela horrek konponduko, talibanek ez dutela horregatik jarrera aldatuko...

Hiru faborito

Hiru hautagaik dute boto gehien biltzeko aukera, begiraleen arabera: Abdullah Abdullah, Zalmai Rasul eta Ashraf Ghani Ahmadzai. Hirurak ministro ohiak dira, Karzairen ministro izandakoak alegia. Zer-nolako aldaketa datorkie afganiarrei? Bide horretatik ba al dago ilusioa eragiterik?

Etniaren arabera antolatutako gizartean, lekuko gerra jauntxo-

{ analisia } **Jose Angel Oria**

Txanponaren hiru aurpegiak

zesuak sinesgarritasunik ez badu, gardena izaten ez bada, exekutibo berriaren oztopo nagusia zilegitasun falta izango da», adierazi digute hedabide horietako analistek.

Irakurketa interesatua
Idea nagusi horri helduta, aurreko asteburuko hauteskundeek inguruko balorazioetan baikortasuna izan da nagusi, %60ko esku hartze tasa izan dela nabarmendu digute, afganiarrek talibaneiei aurre egin dietela... Aldi berean, baina, indar estatubatuarrek zuzendutako okupaziotik ateratako Gobernuak berak jakinarazi du hauteskunde egunean 200 hildakotik gora izan zirela herrialdean; «talibanak» gehienak, jakina. Karzairen agindupean dauden indarrek «talibanak» besterik ez dituzte hiltzen. Zibilak etsaiek hiltzen dituzte, kasu guztietan, Wikileaks erakundeak edo beste norbaitek gauzak beste era batera izan direla frogatzen duten arte. Orduan berehala estaliko dute kontua.

Okupatzaileek aurki utziko dute Afganistan. Hilaren 5ean egin ziren hauteskundeek garrantzia nabarmendu da Mendebaldeko hedabideetan, baina egoerak hobera ez duela egingo pentsatzeko arrazoi asko dago. Gehiegi,

ekin itunak adostu dituzte hiru ministro ohiek, horien laguntzarik gabe ezin baita ezer egin egungo Afganistanen. Hirurak egon dira iruzurrari eta ustelkeriari lotuta. Txanpon beraren hiru aurpegiak direla esan daiteke. Hori bai, hauteskunde zerrendatan etnia ezberdinetako ordezkariak sartu dituzte, afganiar guztien presidente izateko gauza direla adierazi nahian. Hiru horietako bik lortuko dute bigarren itzulira pasatzea (ezinezkoa dirudi norbaitek apirilaren 5eko bozketan botoen %50 baino gehiago biltzea).

Maiatzaren 28an egingo lukete bigarren itzulia, bi irabazleek bestelako formularen bat adosten ez badute; esaterako, bien artean batasun gobernua osatzea, boto gehien lortu duena presidente karguan jarrita.

Zer gertatuko da hilaren 24an, emaitzak ezagutzera ematen direnean, azkenean epeak betetzea lortzen badute?

Begirale askok 2009ko hauteskundeak ekarri dituzte gogorra, orduan esku hartze tasa oso

txikia izan baitzen (%40a ez zen iritsi); iruzurra, begi bista-koa; eta indarkeria, ikaragarria.

Gainditu beharreko maila hain behean jarrita, erraza dirudi gauzak hobeto egitea. Egin daitekeen hipotesirik baikorrenean, 2009ko maila hori gainditzeko bada, irabazleak hartuko luke presidente kargua eta besteek onartu egingo lukete emaitza. Beraz, hauteskunde «arrakastatsuak» izan direla esateko moduan egongo lirateke estatubatuarrak. Eta presidente berriak «berradiskiditze politikaren» bat abian jartzeko aukera izango luke, NATOren tropak joan eta gero.

Baina ezin da baztertu hilaren 24tik aurrera eztabaida eta negoziazio prozesu luze bat abian jartzea, bigarren itzulia beharrezkoa izaten bada: hauteskundeak berriz maiatzaren 28an, kontaketa luze bat ekainean, Ramadan musulmanen hilabete sakratua uztailen, eta abuztua ere pasako litzateke presidente berria nor izango den argitu gabe. Ez dirudi

egonkortasuna lortzeko prozesurik egokiena. Gainera, Afganistanek gaur egun hain beharrezkoa duen nazioarteko laguntzak ere ihes egin dezake (barne produktu gordinaren %95 nazioarteko laguntzek osatzen dutela diote iturri batzuek, baina kanpotik etorritako diru horrek ez du hobetu afganiarrek bizi duten egoera: etxebizitza gehienek argindar, ur eta baldintza sanitario egokirik gabe jarraitzen dute, populazioaren erdiak lanik ez duen herrialdean).

Bestalde, atzerriko konpainia multinazionalak eskatzen duten Meatzaritza Legerik gabe segituko luke Afganistanek. Eta pobrezia eta ezintasuna nagusi direnean, talibanak indartu egiten dira, lehen ere frogatu izan dutenez.

Atzera egin

Eta galtzaileek emaitzak onartzen ez badituzte? Hori litzateke hipotesirik larriena, gerra itzali beharrean, berpiztu eta

indartu egingo lukeena. Aurreko prozesuetako iruzur salaketak kontuan hartuta, ezin da baztertu hautagaien batek bere jarraitzaileak protesta egitera kalera ateratzea, «lapurtutako hauteskundeak» salatzeke.

Abdullah Abdullahren aldekoek jada esan dute ez dutela berriz onartutako 2009an gertatutakoa: Karzairen aldeko iruzurraren biktima sentitu ziren orduan. Testuinguru horretan, etnien arteko tentsioak gora egingo luke eta sobietarrak kanporatu ondoren izandako gerra zibilaren tankerako zerbait iritsiko litzaieke afganiarrei.

«Agian ez du garrantzi handirik izango hauteskundeetako hondakinetatik nor ateratzen den presidente», idatzi du «The Nation» AEBetako ezkerreko astekari beteranoan Bob Dreyfuss defentsa gaietan adituak. Bere irakurketak ez ditu batere lasaituko afganiarrak: «Afganistanek alferrik galdutako kasu bat izaten jarraituko du, erarik garratzenean zatitutako herrialdea, 1980ko hamarka-

Herat ipar-mendebaldeko hirian, botoa emateko ilaran jarrita emakumeak. Batzuek burka daramate jantzita. Bertan tajik etnia da nagusi.
Aref KARIMI | AFP

daz geroztik beraien artean borrokan aritu diren gerra jauntxoek eskualdeak beren mende dituztela».

Dreyfussekin eta beste analista askok uste dute Karzai presidentek sinatu nahi izan ez duen BSA Segurtasunerako Bi Aldeko Ituna sinatzea dela Etxe Zuriaren helburu nagusia. Itun hori adostuz gero, AEBek tropak utziko lituzkete Afganistanen (aurten aterako dituzte tropa gehienak, iragarritako epeei eutsiz gero), bertako segurtasun indarrak gaitzeko eta laguntza eskaintzeko.

Hori da, behintzat, ofizialki esaten dena. Otsailean Obama presidentek deitu zion Karzairi, Segurtasunerako Bi Aldeko Ituna sinatu ezean AEBak soldadu guztiak bertatik ateratzeko prest daudela jakinarazteko. Edo mehatxu egiteko. Edonola ere, Washingtonek atea zabalik utzi du, hauteskundeetatik ateratzen den presidenteak ituna sina dezan. «Hautagaietako inork ezin du sinatu gabe utzi ituna, horrek Afganistango se-



gurtasun indarrek hain beharrezkoa duten laguntza ekonomikoa ekarriko baitie (4.000 milioi dolar edo gehiago), eta diru hori iristen ez bada, indar afganiarrek ez lukete asko iraungo», Dreyfussen iritziz.

Paxtu lurraldea

“The New York Times” egunkariak jakinarazi du hautagai nagusiek herrialdearen iparraldean egin zituztela kanpainako ekitaldi gehienak, hegoaldea eta ekialdea baino eremu seguruagoak direlako.

Izan ere, herrialdean nagusi den paxtu etniako (populazioaren %42) herritar gehienak Afganistango hegoaldean eta ekialdean bizi dira, Kandahar hiriaren inguruan batez ere, hau da, talibanen hiriburua izandakoan. Bertan gerrillari islamikoak oso indartsu dira oraindik, batik bat nekazaritza eremuetan. Presidente berriak eremu horietan izango ditu erronka nagusiak, edonork irabazita ere.



Talibanen indarkeriak eta horrekin batera etortzen den kaosak eragin zuten nazioarteko begirale askok hauteskundeak egin baino lehen herrialdetik ihes egitea.

Kasu batzuetan beraien aurkako atentatuek eragin zuten atzerritarren erabakia; beste batzuetan, indarkeria giroak. Afganistango Hauteskunde Batzordeak berak bunkerretara eta segurutzat emandako etxeetara eraman zituen bere egoitzak. Hauteskundeak garbiak izan zitezen beste arazo bat.

Apirilaren 5eko bozketa baldintzatu zuten moduan, etorkizuna ere talibanen erabakien mende egongo da. Baita estatubatuarrak oraindik hartu ez dituzten erabakiak ere. Robert Dreyfuss adituak horietako bat aipatu du bere artikuluan: zer egin behar du te okupatzaileek urte askotan Afganistanera eramandako ekipamendu militar garestiarekin? Kasu askotan berriz AEBetara eramatea garestie-

gia izango litzateke, baina milaka milioi dolarreko tresneria Afganistanen bertan uztea ez da inor lasaitzeko modukoa, egonkortasun politikorik ez dagoelako.

AEBetako Defentsa Saileko arduradunek uste dute Afganistango Armada ez dela gauza ekipamendu militar hori behar bezala kudeatzeko, oraindik gaizki antolatuta dagoelako (zertan aritu dira bada estatubatuarrak azken urteotan?) eta finantzazio arazoak dituelako.

Armagintza

AEBetako zergapekoek ordainduta, herrialde hartako armagintzak sekulako negozioa egin du Afganistanen, 2001eko inbasioa hasi zene tik. Pribatizazioaren beste aurpegi bat baino ez da: gerraren bitartez, diru publikoa armagintzako konpainien poltsikoetara eramaten da.

Robert Dreyfussekin emandako datuak ikaragarriak dira:

Bamiyan hirian presidentetzarako hauteskondeen egunean hartutako irudia. Eskualde horretan Budaren eskultura erraldoiak suntsitu zituzten talibanek.
SHEFAYEE | AFP

azken hamabi urteotan, Afganistango Indar Armatuek 53.000 milioi dolarreko balioa duen ekipamendua jaso dute. 160 gerra hegazkin, 100.000 ibilgailu, 500.000 arma, komunikaziorako 200.000 elementu eta gauerako ikusmen ekipamendua.

“The Nation” astekariak argitaratu emandako testuaren arabera, Washingtonek doan eskaini die beste herrialdeei Afganistandik atera nahi ez duten ekipamendua, «Errusia alde batera utzita, jakina». Gutxienez 7.000 milioi dolarreko balioa izango luke aipatu ekipamenduak. Nabarmendu ditu MRAP izeneko ibilgailuak, minak ezabatzeko erabiltzen direnak. Oso astunak dira: 40 tona ingurukoak. Horietako 1.600 ibilgailu eraman zituzten okupatzaileek Afganistanera.

Iturri batzuek aipatu dute ekipamendu militar hori Pakistani entregatzeko aukera. Ez dirudi erabakirik egokiena denik, herrialde horretako Ar-

madako eta zerbitzu sekretuetako arduradun batzuen eta talibanen arteko harremanak ezagunak baitira. Beraz, ekipamendu horrek etsaiaren eskuetan bukatuko luke. Horretarako aukera asko izango litzateke, behintzat. Talibanen eta Al-Qaedaen aurkako borrokaren aitzakiarekin Afganistanera eramandako ekipamendu militarra, azkenean, talibanen esku. George Walker Bushen abian jarri zituen gerraren metafora ezin hobea!

Dreyfussekin nabarmendutako arazoak aipatu ere ez dituzte egin hedabide nagusietako analistek. Nahiago izan dute «Afganistan berriaren» mirariak goraipatzea: atentatuak ia egunero izaten diren arren, hildako kopuruak behar egin duela; eskolara joaten diren umeen kopuruak gora egin duela, goi mailako hezkuntza jasotzen duten emakumeen kopuruak bezala; hilaren 5ean botoa eman zutenen %40 emakumeak izan zirela...

HONDAMENDI NATURALAK

Txile, lurrikaren eta tsunamien ondorioak saihesten graduatutako herrialdea

 **GIZARTEA** / Marianela Jarroud - Tierramerica

Badirudi Txilek zerbait ikasi zuela 2010eko lurrikara eta tsunamitik (500 hildako) eta ikasitako hori ezin hobeto eta arrakasta osoz erabili zuen apirilaren 1eko gauean, beste lurrikara batek herrialdearen iparraldeko muturra astindu zuenean. Aldaketa ikusgarri horren atzean inbertsio ekonomiko handia dago. Baita gizaki askoren ahalegina ere.

Azken urteotako astinaldi bortitzek beldurtuta, kaltetuak inguruko mendixketara joan ziren apirilaren 1eko gauean, Ozeano Baretik bi kilometro eskasera dauden muinoetara, Armadaren Zerbitzu Hidrografiko eta Ozeanografiko-

ak tsunami-alerta plazaratu ondoren. Beldurra nagusi izan zen arren, ia milioi bat pertsonen arrakasta osoz eta modu eraginkorren egin zuten ebakuazioa. Hedabideek aipatutako hildako sei pertsonak bihotzekoak jota edo zapalduta zendu ziren.

Richter eskalan 8,2 gradu izan zituen lurrikara 23:46an gertatu

Herritarrek Iquique hiriko errepide batean argazkiak egiten, bezperako lurrikarak eragindako kalteen lekukotasuna betiko gordetzeko.
Aldo SOLIMANO | AFP

zen, Greenwicheko ordua. Urtarilaren 1az geroztik herrialdearen iparraldean izan duten astinaldirik bortitzena izan zen. «Gure apartamentuan geunden, eraikin bateko hirugarren solairuan. Alaba eta senarra besarkatu nituen. Bat-batean, leihoez eztanda egin zuten eta beira zatiak erori zitzaizkigun bizkarre-ra. Ikaragarria izan zen», esan dio Tierramericari Iquique iparraldeko hiriko biztanle batek. Gaur egun itsasertzetik urruti bizi da, tsunamiek harrapatu ezin duten puntu batean.

«Asko ikasi dugu. 2010ean gaizki funtzionatu zuten makina bat elementuk akatsik gabe funtzionatu dute azken lurrikararen ondoren», adierazi dio Tierramericari Sergio Barrientos Txileko Zentro Sismologiko Nazionalako zuzendariak.

Orain lau urte oso bestelako kontuak izan ziren. «Lurrikaren



monitorizazio sistemak kolapsatu egin zitzaizkigun eta lurrikararen inguruko informazioa eman ahal izateko bi ordu behar izan genituen», esplikatu du. «Oraingoan, lurrikara bera txikiagoa izan arren, herritarrek beharrezkoa duten informazioa emateko minutu gutxi batzuk nahikoa izan ziren», esan du.

Michelle Bachelet Txileko presidenteak Iquique (Santiagotik 1.800 kilometrora, iparraldean) eta Aricako (hiriburutik 2.200 kilometrora) eremuen gainetik hegari egin zuen eta egoeraren berri izan zuen. «Ebakuazio prozesua eredugarria izan da oraingo honetan, elkartasun handikoa, eta horri esker hain zaila izan zitekeen maniobra gorabehera handirik gabeko prozesua izan da. Horri esker herritarrak tsunamiaren mehatxutik eta lurrikarak eragindako beste arazo larrietatik babestuta egon dira», adierazi du Barrientosek.

PROTOKOLOEK, PORROT 2010EAN

Presidente kargua bigarren aldiz joan den martxoaren 11n hartu zuen Bachelentzat, apirilaren 1eko lurrikara saio erabakigarria izan zen. Izan ere, bere lehen agintaldia Richter eskalan 8,2 gradu izan zituen 2010eko otsaileko lurrikara gertatu eta berehala bukatu zuen, hondamenditik hamabi egunetara. Orduan naturak Txileko erdialdeko eta hegoaldeko eremu handiak suntsitu zituen, ezer errespetatu gabe.

Kasu hartan tankerako egoeratarako prestatutako protokoloek porrot egin zuten eta tsunami-alerta beranduegi iritsi zen. Ondorioz, 500 pertsona inguru hil eta 200.000 etxebizitza inguru suntsitu ziren. Bacheleten aurkako kereila bat ere aurkeztu zen epaitegian eta garai hartan bere laguntzaile izan ziren pertsona batzuk ikertzen ari dira oraindik epaileak.

Lau urte eta gero, oraingoan gauzak aldatu egin dira. Presidenteak berehala hondamendi eremu izendatu zituen kaltetutako eskualdeak eta Indar Armatuak agindu zien ordena publiko zaintzeko. Lehenago, turutek herritarrei nahikoa denborare-



kin jakinarazi zieten tsunami arriskua zegoela eta milaka lagunek leku arriskutsuenak utzi zituzten, lasaitasunez.

Aldaketa ikusgarri horien atzean inbertsio ekonomiko

Etxea kaltetutako herritarrak, kalean bizitzen. Irudia apirilaren 4koa da. Cris BOURONCLE | AFP

handia dago. Baita gizaki askoren ahalegina ere. 2012an, Zentro Sismologikoak hitzarmen bat sinatu zuen Barne Ministerioarekin sentsore sarea indartzeko eta estazio berriak sortzeko. Gaine-

ra, komunikazio sistemak ere sendotu egin zituzten.

Zazpi milioi dolarreko inbertsioa egin zen, oraindik lan guztiak erabat bukatu gabe badaude ere. Hamar monitorizazio estazio berri sortu ziren, ekipamendu berria eta satelite bidezko teknologia erosi zen, eta Larrialdietarako Bulego Nazionalako eta Zentro Sismologikoko langileak gaitu egin zituzten.

Hondamendiei aurre egiteko eta ondorioak murrizteko estrategiak, Txilen gertatu moduan, leku askotan eman ditu fruituak. Latinoamerika osoan gauza bera gertatzen ari da, Unesco hezkuntza, zientzia eta kulturarako Nazio Batuen erakundearen bulegoak jakinarazi duenez. Latinoamerikako eremu askotan ohikoak dira lurrikarak eta tsunamiak, sumendien erupzioak eta urakanak, eta gertaera horiek beti urrakortasun baldintzei lotuta ageri dira, pobreziarekin eta segurtasun faltarekin esaterako.

Hala ere, bertako populazioa gaur hobeto prestatuta dago, herrialdeen arteko lankidetzak eraginkorra da eta alerta eta erantzun mekanismoak efizienteak dira, Unescok nabarmendu duenez. «Txile kaltetu zuen 2010eko otsailaren 27ko tsunamiaz geroztik egoera asko hobetu da», dio gaur egun Unescok.

Lekuko agintariekin batera, Txile, Peru eta Ekuadorreko biztanleak gaitzeko hezkuntza egitasmoak aurrera ateratzen ditu Nazio Batuen Erakundeak. Txilen, zehazki, urak hartzeko arriskuan dauden eremuetako 144 eskolatan egin zen formazio lan hori, hau da, itsas mailarekiko dagoen distantzia bertikala 30 metrora iristen ez diren lekuetan.

«Tankerako egoerei aurre egiten ikas dezaten herritarrak prestatzea da garrantzitsuena, batez ere Txile bezalako herrialde batean, tsunamia lurrikara gertatu eta handik 15 edo 20 minutura iritsi baitaiteke, eta informazioaren analisia egiteak berak hamar minutu hartzen ditu», esan dio Tierramericari Rodrigo Cienfuegos ingeniari hidrauliko eta Hondamendi Naturalen Kudeaketa Integraturako Ikerketa Zentro

Beldurra nagusi izan arren, ia milioi bat pertsonak arrakasta osoz egin zuten ebakuazioa. Hildako sei pertsonak bihotzekoak jota edo zapalduta zendu ziren

«Herriarrek jakin behar dute itsasertzetik hain hurbil bizitzeak zein arrisku dituen. Zaila da urte asko itsasoaren ondoan bizi izan direnak itsasertzetik aldentzea»

Nazionaleko adituak. «Herriarrek modu autonomoan erreakzionatu behar dute, jakin behar dute norantz alde egin, apirilaren 1ean izan genuen lurrikararen ezaugarriak dituen astinaldi bat gertatu eta berehala», erantsi du Cienfuegos tsunami ikerlariak.

Lehen erasoaldia gaindituta ere kaltetuen lana ez da bukatu. Ondoren «prestatutako biktimak» izaten ikasi behar dute: hortik aurrera iritsiko zaien egoera jasaten, esaterako, etxea utzi eta desplazatu bihurtzea edo nahiko janari, ur eta argindar ez izatea jasaten. «Gure asmoa larrialdia pasa ondoren, aro berri eta zail horretan bizitzeko herriarrek hobeto prestatuta egotea da», dio Cienfuegosek.

ITSASERTZETIK ALDENDU

Unibertsitate Katolikoko irakasle horren iritziz, Txilek oraindik

ez dauka lasai egoterik, 4.000 kilometroko itsasertza duelako herrialdeak eta lurrikarak bertan beste inon baino maizago gertatzen direlako. Etorkizunean gizakien kokalekuak zeintzuk izango diren berriz aztertu behar du herrialdeak, esaterako. «Herriarrek jakin behar dute itsasertzetik hain hurbil bizitzeak zein arrisku dituen. Zaila da urte asko itsasoaren ondoan bizi izan direnak itsasertzetik aldentzea, baina neurriak hartu behar dira kokaleku berriak non jarri aztertzeko garaian».

Sismologoen diote Txileko iparraldeko herriarrek erne jarraitu beharko dutela. 137 urte pasa dira azken lurrikara erraldoia gertatu zenetik, eta geroztik pilotutako energia apirilaren 1ean askatu zena baino askoz ere handiagoa da. Beraz, astinaldi bortitzak berriz izango dituzte.



Lurrikarak suntsitutako arrantza ontziak, Iquiqueko portuan. Aldo SOLIMANO | AFP

MARIO PARDO SISMOLOGOA

«Lurrikara bortitzago bat izatea espero dugu, 8,5 graduko astinaldia»

Adituek jakitera eman dutenez, apirilaren 1ean Txileko iparraldean astindu zuen 8,2 graduko lurrikarak azken mende eta erdian planetaren eremu horretan pilotutako energiaren zati bat askatu zuen, baina ez guztia. Txilek sismikotasun altua du, munduko altuenetakoa, Ozeano Bareko Suzko Eraztunaren gainean baitago, Nazcako plakak eta Hego Amerikakoak bat egiten duten eremuan.

Tarteka, txiletarrek entrenamenduak egiten dituzte lurrikarek eta tsunamiek nola aurre egin jakiteko. Gainera, herrialdean eraikuntzak indartzeko lurrikaren aurkako arau zorrotzak ezarri dira.

Mario Pardo Txileko Unibertsitateko Zentro Sismologikoko zuzendariordea da. France Presse agentziari azaldu dio apirilaren 1eko lurrikara gertatu zen eremu bera astinaldi bortitzago batek kaltetu dezakeela.

Zer gertatu zen Txileko iparraldean?

Lurrikara handi bat gertatzea espero genuen lekuan bertan, astinaldi bat izan zen. Izan ere, 1877an 8,8 graduko lurrikara bat gertatu zenetik lurrak ez zuen bertan dar-dar egin, ez nabarmentzeko moduan bederen. Apirilaren 1ean eremu horretan pilotutako energia askatu egin zen azkenean, Hego Amerikako eta Nazcako plaken sei metro inguruko desplazamenduaren eraginez;

hori dela eta, 8,2 graduko lurrikara bortitza izan zen.

Lurrikara larriago bat gerta daiteke?

Lurrikara handi bat prestatzen ari da. Orain, egia esan, ez da aktibatu 600 kilometroko luzera duen aintzira sismikoaren eremu guztia, 180 kilometroko luzera eta 120 kilometroko zabalera duen zatia baizik. Oraindik bi eremu geratzen dira, bat Peruko hegoaldean eta bestea Txileko iparraldean, batere mugitu ez direnak. Beraz, inguruan lurrikara bortitzago bat gertatzea espero dugu, 8,5 graduko astinaldia, gutxi gorabehera.

Nola prestatzen zarete lurrikara handi baten aurrean?

Eskualdean dauden estazio sismologikoak ditugu, horietako asko Alemaniarekin eta Frantziarekin elkarlanean jarritakoak. Horiez gain, estazio eramangarriak jartzen ari gara. Hamabost dauzkagu eta beste berrogei instalatuko ditugu. Baita GPS ekipoak ere. Ez dakigu hurrengo lurrikara noiz gertatuko den. Edonola ere, gehienez zenbat gradukoa izango den jakitea komeni zaigu, baita zer-nolako ezaugarriak izango dituen ere. Hurrengo lurrikarekin lurra nola mugituko den jakiterik izaten badugu, gure ingeniariak astinaldi horiei aurre egiteko moduko egiturak diseinatzeko aukera izango dute.



Erreplika batek kalera atera zituen herriarrek hilaren 3an. Juan LEONEL | AFP



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Azkunaren hirigintza-ondarea

Bilboko Itsasadarra Garbitzeko Plan Integrala 1979an onetsi zen. Bilbo Metropolitarra Eraberritzeko Plan Estrategikoa eta Bilbao Ría 2000 elkarteak 1992an sortu ziren. Abandoibarreko diseinua 1993an esleitu zen eta 1998an zehaztu. Bilboko Hiria Antolatzeko Plan Orokorra 1994an onetsi zen. Metroa, 1995ean inauguratu. Guggenheim museoa eta Loiuko aireportua, 1997an. Superportuaren lehen fasea, 1998an.

1999 arte ez zen iritsi alkatetzara Iñaki Azkuna. Beraz, Bilboren sakoneko eraldaketa handia pertsonifikatu zuela esatea, egunotan hainbat hedabidetan ziurtatu den bezala, askotxo esatea da (Ibon Aresok berak ardura nabarmenagoa eduki du, izan ere, zeregin horretan). Hala ere, ezin da ukatu Azkunaren eragina Bilboren itxuraren eraldaketan. Hau da, hiriburuaren eraberritzearen hezurdura dagoeneko jarria bazegoen ere, bera izan zen hiriari azala zaharberritu ziona. Merkantilizazioaren bide aski eztabaidagarritik, hain zuzen ere.

Bartzelonari jarraiki, Bilbao (sic) marka bihurtu eta nazioartean saltzen lortzea da Azkunaren hirigintza-ondare nagusia, bere ustezko xalotasuna gorabehera. Bilboren internacionalizazioa, alegia. Hori, eta hori lortzeko hartutako hainbat erabaki, hirian (eta hiritarrengan) eragin handia eduki dutenak. Esaterako, zerbitzuen hirugarren sektorearen eta ezagutzaren laugarren sektorearen aldeko apustu handia egin zuen Azkunak, lehen eta bigarren sektore produktiboen deslokalizazio erabatekoa ekartzen ari dena (ezin da ahaztu 2004ko Boluetako birkalifikazio polemikoa). Zen-

tzu horretan, artearen, arkitekturaren eta hiri-diseinu espektakularraren aldeko postura itsuegia hartu izana leporatu dakioke, hiriaren musealizazioa eta turistifikazioa helburu.

Hiri-marketin itzela sustatu zuen, halaber, nazioartean gogor lehiatzeko asmoarekin, baita neurri batean lortu ere (gogoratu 2010. urteko Shanghaiko nazioarteko erakusketa propagandistikoa), euskara (eta euskaldunok) gehienetan, gehiegitan, alde batera utziz, tokiko folklore jatorraren mailan edo.

Eta, turistak erakartzeko eta hiria lehen mailako salgai bihurtzeko lehia indautxuzentrista horretan periferiako auzo pobreenak apur bat ahaztu zituen, eta, jakina, denak ez zirenez argazkirako ongi etorriak, hirigune zaharreko gentrifikazioa lagundu eta hiri-kontrol zorrotza ezartzen lagundu zuen. Horren adibide argiak dira Bilbo Zaharreko bideozaintza-sistema alferrekoa, konpartsekiko beligerantzia ez beharrezko eta ulergaitza, 2010eko espazio publikoaren ordenantza gehiegizkoa eta 2011ko Kukutzaren huste despotiko samarra.

Bilbo nazioarteko mapan ezartzen lagundu duela ezin da ukatu. Horretarako bilbotar batzuek faktura sozial garesti samarra ordaindu dutela ere ez. Guggenheim efektu propagandistikoari probetxu atera baitio, Soho efektu elitista eta baztertzailea ere sustatuz. Baina, egia esan behar baldin bada, ingurumari hauetako hirietako hirigintza-politikak ikusita, ez dirudi inori gehiegi axola zaionik: hiri gehienak ari dira Azkunaren Bilboren eredu distiratsua koptatu nahian. •



ILUSTRAZIOA: Unai Fernandez de Betoño

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Ez dute obedituko, ez dira isilik egongo

Konparazio futbolistikoa eginez, emaitza jakina, kantatua zuen partida jokatu da asteon Madrilgo Kongresuan. Turull, Rovira eta Herrera Kataluniako hiru ordezkariak bertaratu ziren kontsulta deitzeko eskumena eskatzera, eta irudi plurala, argia eta serioa, Kataluniako herriaren gehiengo batek exijitzen duen neurrikoa emanda ere, bozketaren emaitzan ez zen mirakulu politikorik gertatu. Eskutik hartuta, PSOEkoak PPko hizlaria eta PPkoak PSOEko txalotuz, unionistek ezezko borobila eman diote eskaerari. Gol zaparrada Kongresuko markagailuan.

Unionistek mezu garbia pasatu dute. Legea legea da, legearen letra eskritura santua eta gauzak diren modukoak dira: «Ezin da erreferendumik egin, ezta independentzia proposatu ere, guk baimentzen ez dugulako. Badakizue, beraz, zer duzuen, isil-isilik obeditu eta txiton!» Halakoak dira unionistak, supremazistak, pluraltasunarekiko errespetu zipitzik gabekoak, amorrak itsuturikoak.

Ulertu nahi ez dutelako edo ulertzen ez dakitelako, baina ez dute ulertzen. Ez dute ulertzen hobe dela beraientzat banaketa hitzartua, ondo negoziatua den banaketa bat, aldebakarreko independentzia aldarrikapen bat baino. Ez dute ulertzen kontsulta izan daitekeela autodeterminazio ariketa bat, prozesu independentista baten azken jauzia ala izan daitekeela independentziaren inguruan herri batek duen iritzia neurtzeko inkesta modukoa, bidea egiteko borondaterik badago, independentzia negoziatzeko lehen urrats eta heldulekua. Ateak ixten, irabaz dezaketen zelaietan partidak jokatzen baina galduko dutenetan partidak bertan behera uzten espezialistak dira. Botoa eman? Madrilgo Kongresuan, bai. Baina katalanei botoa emateko aukera eskaini? Inola ere ez. Garaipena segurua den kasuetan eta zelaietan nahi dute joko. Tamalez, haiek indartsu ageri direla, autodeterminazioa gauzatu nahi duten herriak ahulak direla uste dute. Hori bai, hori horrela ulertzen dute.

Baina oker, oso oker dabiltza. Pertseberatzen duenaren apaltasuna eta indartsuaren nagusikeriaren arteko borroka honetan, jarrera horrekin Kataluniaren kohesioa eta bere apustuaren zilegitasuna sendotu besterik ez dute egiten. Ez dituzte kataluniarrak konbentzitzen eta ez dute Katalunia azpiratzen. Kataluniako ordezkariak ez direlako

Madridetik esku hutsik bueltatu. Legearen atea itxita baina legitimitatearena are irekiago bueltatu dira.

Izan ere, kataluniarrei erabakitze eskubidea ukatzea ez da kontu legala, borondate politikoko auzia baino. Eta argi baino argiago geratu da Espainia monolitikoaren ikuspegi zaharkituaren preso diren unionisten borondate politikoa hutsaren hurrengoa dela, Konstituzioa katekesi dogmatiko eta itsu bihurtu dutela, kultura demokratiko ireki baten falta negargarria erakusten dutela. Kataluniako Parlamentuaren legitimitatea indartuta atera da mezezi duten, kataluniarrek exijitzen duten erantzuna emateko. Etapa bat erreta, Parlamentuak Kataluniako Errepublika independentea aldarrikatzeko horizontea argitu egin da.

Beste kontu bat ere argitu da. Izan ere, baziren elite kataluniar batzuk, finantza eta enpresa munduko sektore batzuk, Kataluniako egunkari salduenak akuilaturiko «hirugarren bidea» defendatzen zutenak. Eta erreferendumari Rajoyk ezetza emango ziola segurutzat jotzen bazuten ere, tarteko proposamen alternatibo bat espero zuten, Kataluniarentzat Konstituzioan erregimen espeziala finkatuko lukeen bide bat. Bada, deus, zero, hitz bakar bat ere ez. Erreferendumari bezala «hirugarren bide» horri ere ezezko biribila. Ez eta ez, denari eta ñabardurarik gabe, ez. Eta horrela, hirugarren bidearen aldeko hitz apaingarriak eta erretolika sekula baino ukituago geratu dira.

Ez, Kataluniari datorkiona ez da erraza, ez da arrosak biltzeren pareko izango. Lana erruz, adorea, irudimena eta zortea, zorte on dosi eder bat alde beharko dute. Gero eta neurritz kanpokoagoak izango diren probokazioei aurre egin beharko diete. Batasuna zaindu eta autoestimua altu atxiki, beren indarrean konfiantza sendo eutsi beharko dute. Baikortasunerako motiboak, baina, ez zaizkio falta Kataluniari. Gizarte mobilizatu eta sutsu batean oinarrituta, 300 urte itxaron duten eta berriz ere aurkeztuko ote den segurantz ez duten aukera aprobetxatu egingo dute. Askok aurreratu dute, baina gaurtik eta azaroaren 9ra asko daukate egiteko, asko egiteke. Eta egin, egingo dute. Etorri diren lekutik etorrira, hitz egiten duten hizkuntza hitz eginda eta sentitzen dutena sentituta, Katalunian bizi diren guztientzako herri libre eta hobeago bat egiteak merezi duelako. •

Ulertu nahi ez dutelako edo ulertzen ez dakitelako,
baina supremazista diren unionistek ez dute ulertzen



PROSTITUZIOA, ITZALEKO OFIZIOA

«Historia de la prostitución en Euskal Herria» liburuan garai bakoitzean prostituzioak gure artean izandako forma desberdinak jaso ditu Charo Roquerok, batez ere XVII. mendetik aurrera.
GAUR8

Ilunera kondenatutako lanbidea argitara ekarri nahia

 **GIZARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Prostituzioa betidanik existitu izan da Euskal Herrian, nahiz eta gizartearen une bakoitzeko tasunak tarteko, forma eta modu desberdinetan eman den aldiro. Itzaleko ofizioa da, existitzen den baino existituko ez balitz bezala hartzen den munduaren ertz ilun bateko lanbidea. Charo Roquerok argitara ekarri du liburu batean.

Soziologia eta Historia ikasi zuen Charo Roquerok, baina ez da historia handiaren eta soziologia handiaren zale. «Gai bat hartu eta ikuskera soziologiko eta historiko batetik aztertzea gustatzen zait», agertu du. Gai handien itzaletan dauden gaien zalea da beraz. Eta, bereziki, emakumearekin lotura duen guztiak ematen dio arreta. «Izugarri interesatzen zaizkit emakumearekin lotutako gaiak;

emakume baten jokaera baldintzatzen eta mugatzen duten egoera historikoak ikertzea gustatzen zait. Zerk bultzatzen du emakume bat bizitzan jokaera bat edo bestea izatera?». Eta bere jakin-min eta interes horiei segituz iritsi da Charo Roquero Euskal Herrian prostituzioaren historia ikertzeraz, itzaleko ofizio bat argitara atera asmoz. Duela aste batzuk aurkeztu zuen Txalaparta etxearekin argitaratutako lana: «Historia de la prostitución en Euskal Herria».

Prostituzioaren aurrean jarre- oso bitxia dauka oro har jendarteak. Gauza jakina da existitzen dela, baina existituko ez balitz bezala jokatzeko da, bazterreko ertz horretan gertatzen dena inoren mesedetan edo kalteetan ez balitz moduan. Hartara, ez da erraza prostituzioari buruzko informazio historikoa bil-tzea, batez ere XIX. mendearen aurrekoa. «Izugarri zaila da dokumentazioa lortzea. Ez dago agiririk edo paperik, ez baita izan publikoki hitz egiteko gai bat. Ez da gai erakargarri bat eta inori ez zaio komeni izan prostituzioari buruz hitz egitea, ez bezeroei ezta prostitutei ere. Era bat klandestinoan izan da hala komeni izan zaielako denei», kontatu du Roquerok.

Horregatik, XVII. eta XVIII. mendeetan prostituzioak egin zuen bidea aztertzea ez da lan samurra izan. «Datu bilketa nekeza izan da. Auzietako doku-

mentazioa ikertuz topatu dut informazio asko, auzi desberdinei buruzko agiri dezente dagoelako. Ez dira zuzenean prostituzioaz ari, baina tartean agertzen dira gai horri buruzko xehetasunak». Prostituzioaren kontaketa historikoa, beraz, le- rro artean jasotakoarekin osatu behar izan du, ofizioa bera hala-koxea delako, lerro artekoa, izenburu handirik gabea.

XIX. mendearen aurretiko dokumentazioa topatzea zaila da, baina horrek ez du esan nahi Euskal Herrian garai horietan prostituzioa existitzen ez zenik. «Bada sinesmen oso orokortua pentsatzen duena Euskal Herrian prostituzioa ez dela existitu edo, izatekotan, oso gauza isila eta gutxi batzuen baino ez dela izan. Zer pentsa ematen du, esaterako, euskaraz 'puta' hitza ez existitzeak. 'Emagaldut' esaten da, baina asko samurtutakoa iruditzen zait, behartu samarra.

«Herriko apaizak behin eta berriro abisua eman arren ‘kaskarina eta urdanga’ izaten segitzen zuen emakumea ilea eta bekainak moztu eta herritik bota egiten zuten»

Literatura erromantikoak Euskal Herriaren irudi oso idilikoa marraztu du. XIX. mendeko literaturak deskribatzen zuen Euskal Herrian prostituzioa ez zen kabitzen. Elizak sekulako eragina zuen eguneroko bizitzan, bai kalekoan eta baita etxe barrukoan ere. Herriko apaiza izan ohi zen herriko pertsonarik botere-tsuen eta berak erabakitzen zuen zein zen emakume ona eta zein ez. Apaizaren botere bortitz horrek asko baldintzatzen zuen emakumeen bizitza. Gainera, herri txikiak nahiko aparte zeuden, baserrien artean endogamia handia ematen zen eta odolaren garbitasunari garrantzia handia ematen zitzaion», kontatu du Charo Roquerok.

Hartara, baldintza horiek guztiak tarteko, XIX. mendea baino lehen Euskal Herrian ematen zen prostituzioa nahiko diskretua izango zen akaso, ez zen sareetan antolatutakoa, baina egon bazegoen.

PROSTITUZIOAREN ARRASTOAK

Garai bateko erromerrien kontakizunetan arakaturaz, esaterako, jakin izan du egun bat baino gehiagoko erromeriak debekatu egin zirela Euskal Herriko zenbait bazterretan, «gauak ez zitzan bidean harrapatu, ba omen zirelako erromeriatik bueltan bide izkinetan gizonezkoak ‘galbidera’ eramaten zituzten emakumeak».

Topatu ditu, era berean, prostitutak herrietatik kanporatzeko erabiltzen zituzten errituak ere. «Herriko apaizak behin eta berriro abisua eman arren ‘kaskarina eta urdanga’ izaten segitzen zuen emakumea ilea eta bekainak moztu eta herritik bota egiten zuten txistuaren eta danbolinaren laguntzarekin», jaso du Roquerok bere liburuan.

Ogi puska bat eta errefau pare bat ematen omen zizkieten bidean jateko. Emakume hori herritik botatzea ospakizun bihurtzen zen, dantza eta guzti, eta herriko jende asko bertaratzen zen ikustera. «Herria ohitura eta bizimodu onak irensten zituen piztiz libratu izana» ospatzen omen zuten. Herriaren mugara bertara eramaten zuten emaku-

1557an Iruñean bazen Udalak finantzatutako prostituzio etxe bat. Ulertzen zen funtzio sozial garrantzitsua betetzen zuela, «gizonak bere behar bortitzak asetzeko tokia» zelako

Beheko argazkian, Charo Roquero soziologo eta historialaria. Ez da erraza izan Roqueroentzat prostituzioaren inguruko dokumentazioa biltzea, ezkutuko lanbidea zelako eta ez delako agerietan lehen lerroan agertzen. Lerro artean topatu behar izan du informazio asko. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

me hori, eta handik bota. Eta errituak kanta propioa zuen gainera. Iztuetak euskal dantzen inguruan idatzitako liburuan jasotzen duen “Neskagizonkiak erritik botzeko soñua” deiturikoa zen erritu horren sintonia.

Beraz, akaso ez zegoen prostituzio nabarmena euskal gizartearen moral kristau estuak zeukan pisuagatik, baina baziren ostatuak, kaleetan eskale modura ibiltzen ziren emakumeak eta baita gune estrategikoetan egon ohi zirenak ere; pasabideetan, mandazainak pasa ohi ziren bideetan eta militarren egonleku inguruetan kasu.

«Jende askorekin hitz egin dut eta kontatu didate Donostian, adibidez, bazirela ‘moral arineko’ emakumeak tabernaz taberna ibiltzen zirenak konpainia bila eta gizonezkoak euren etxeetara eramaten zituztenak. Hirian denek ezagutzen zituzten eta denek zekiten non topatu emakume horiek», kontatu du Charo Roquerok.

“Moral arinekoa”, “bizimodu alaikoa”, “emakume mundutarra”... izendatzeko moduan bertan suma daiteke emakumearen portaera epaitzeko beharra. «Harreman sexualak normaltasun handiagoz hartzen ez diren bitartean, emakumea epaitzen segituko da, bai lehen eta bai orain. Markatutako bidetik ateratzen den emakumearen jokabidea beti da susmagarria», iritzi dio Roquerok.

XIX. mendera arte prostituzioa apartatutako parajeetan, denek ezagutzen zituzten baina inoren begien aurrean ez zeuden etxeetan, kaletako bazterretan eta era guztietako itzaletan eman zen beraz. «Salbuespena izan zitekeen Iruñea. Gauza jakina da bertan bazirela putetxeak, nahiko bistara, eta, gainera, Udalak berak finantzatutakoak. Topatu dut dokumentu bat, 1557. urtekoa, esaten duena ‘dagoen eskaera nabarmenaren aurrean’ egoki ikusten dela ‘emakume mundutarrak’ bilduko dituen





etxe bat antolatzea». Baina Iruñeko Udalaren erabakia ez zen inondik inora jarrera ireki baten ondorio, bestelako arrazoiak bultzatutakoa zen. «Horren atzean ‘gaitz erdi’ zioen ideia zegoen. Alegia, pentsatzen zen prostituzioak bazituela bere onurak, freno lana egiten zuela eta neskato eta emakume ondraduen kontrako bortizkeria saihesten zuela».

Gizonaren behar sexualak nabarmenak eta kontrolaezinak zirela ulertzen zen, eta prostituzioak behar bortitz horiek askatzeko bidea ematen zuela. Hartara, ezkontzaren barruan behar sexualak ase gabe zituenak edo derrigorrezko zelibatuan bizi zenak –apartatutako baserri batean bizi zelako edo bere bizitza erlijioso edo militarra tarteko, adibidez– prostituzioan topa zezakeen ihesbidea. Eta, arrazoi hori tarteko, onartu egiten zen.

«1479. urteko Bizkaiko zenbait dokumentutan jaso geratu denez, ulertzen zen ‘prostituzioak ekidin dezakeela emakume ondradu baten bortxaketa’. Hartara, prostituta edo ‘emakume publiko’ bat bortxatzea ez zen delitu jotzen», kontatu du Roquerok.

«Pentsatzen zen prostitutek behar-beharrezkoa zen funtzio soziala betetzen zutela. Ulertzen zen gizonak kontrolatu ezin zituene behar sexualak zituela eta, gainera, inori ez zitzaion burutik pasatzen kontrolatu beharra zuenik ere. Erabateko patriarkatu molde bat da, baita emakumea gauza bihurtzeko saio krudela ere. Emakumea, finean, gizona deskargatzeko bidea da. Eta erabat hipokrita iruditzen zait, ‘emakume ondraduak’ bortxa ez ditzaten prostitutak bortxatzea onartzea. Prostituten aurkako indarkeria izugarria izan da, beldurgarria eta, gainera, jendarteak onartutakoa», iritzi dio Roquerok.

Prostituzioa beti izan da oso gaizki ikusitako ofizioa, eta hala

Prostituzioa zigortua izan da betidanik, baina beti emakumea zigortu izan da. Bere zerbitzu sexualak ordaintzen zituen gizonezkoak ez zuen sekula errurik izaten jendartearen begietara. GAUR8

«Ulertzen zen ‘prostituzioak ekidin dezakeela emakume ondradu baten bortxaketa’. Hartara, prostituta edo ‘emakume publiko’ bat bortxatzea ez zen delitu jotzen»

«Ezkontzerako orduan, emakumearen balioa ezberdina zen birjintasunaren arabera. Eta birjina ez zenak jada ez zuen hainbeste balio ezkontza merkatuan, bere balioa jaitsi egiten zen»

izaten segitzen du. Baina fase desberdinak ezagutu izan ditu. Debekuarena bata, lanbide horretan jarduten zutenak gogor zigortzen zituenak. Zer pentsa ematen du, hain juxtu, zigorra beti prostitutarentzat izaten zela, ez bere zerbitzuak eskatzen zituen gizonarentzat. Bazen XVII. mendean moja bat, Juana Ines de La Cruz izenekoa, bere garairako ideia oso berriak zekarkiena. Berak idatzita utzitako hausnarketa bat da honakoa: «*Y ¿cúal es más de culpar, aunque cualquiera mal haga, la que peca por la paga o el que paga por pecar?*».

Baina mojaren ikuskera berezia zen garairako, historian zehar “emakume onaren” eredu ofiziala oso bestelakoa izan delako. Emakumearen feminitate ideala oso lotuta egon da bere portaera sexualarekin eta, ondorioz, izan zezakeen bertuterik handiena eta baliotsuena birjintasuna zen.

BIRJINTASUNAK PREZIOA ZUEN

«Birjina izatea oso garrantzitsua zen. Emakume bati ematen zitzaion balio handiena hori zen eta horrek prezio bat zuen merkatuan. Ezkontzerako orduan, emakumearen balioa desberdina zen birjintasunaren arabera. Eta birjina ez zena zigortu egiten zen, jada ez zuen hainbeste balio ezkontza merkatuan eta ez zeukan gizonezko klase gorenarekin lotzeko aukerarik, mailaz jaisten zen alegia», agertu du Roquerok.

Hartara, baziren ezkontza promesa baten truke jarduten zuten emakumeak eta, Roqueroen ustez, hori prostituitzeko beste modu bat zen. «Emakume batek, zeukan baliorik handiena birjintasuna zela jakinda, onartzen zuen gizonezko batekin harreman sexualak izatea baldin eta berekin ezkonduko zela hitza ematen bazion. Emakume horiek kortse azpian eraman ohi zuten papertxo txiki bat promesa hori jasotzen zuena gizonaren sinadurarekin. Horrelako papertxo mordoak topatu dut hango eta hemengo artxiboetan, asko oso letra txarrarekin idatziak. Promesa horri esker

lortzen zuten gizonezkoek harreman sexuala izatea eta, gero, gehienetan, ez zuten hitza betetzen. Eta kasu horiek epaiketara eramaten zituzten. XVIII. mendean horrelako kasu asko epaitu zituzten», kontatu du.

Berez Elizak gizonok ezkontzera derrigortzen zituen eta, bestela, emakumeoi kalte-ordainak ordaintzera emandako hitza ez betetzeagatik. «Baina askotan eta askotan ez zituzten kalte-ordain horiek ordaintzen eta ez zen ezer pasatzen». Charo Roquerok garbi dauka, «ezkontzeko promesa horiek prostituzio mota bat dira. Emakumea gauza bihurtzen zuten eta ulertzen zen emakume batek ez zuela ezer egiterik ez bazuen gizon bat ondoan. Berak bakarrik ez zuela ezertarako balio, ez zuela ez eskubiderik, ez baliabiderik, ez aurrera egiteko inongo modurik».

Liburua osatzerakoan amorratu eta haserrarazi duten gauza asko topatu ditu Roquerok. Bere hitzetan, bereziki mintzen dute emakumearen erabateko mendekotasuna eta babesgabetasun beldurgarria bistaratzen duten kasuak. «Etxeko lanetan aritzen ziren neskatoen kasuak oso mingarriak ziren. Asko baserrietik hirira etortzen ziren etxe batean zerbitzatzera. Askotan adin txikikoak ziren eta gurasoek etxe horretako jabeen esku utzi zituzten konfiantzan. Beren kargu uzten zuten alaba eta maiz etxeko jauntxoak, bere botere egoera baliatuta, bortxatu egiten zuen neskatoa. Askotan birjinak ziren eta horrek gehiago tentatzen zituen jauntxoak. Asko haurdun geratzen ziren, ez zeukaten abortatzeko inolako aukerarik... Erabat babesik gabe geratzen ziren», esan du Roquerok. Egoera latz horretan, emakume askok jotzen zuten ondoren prostituziora, bizitzan aurrera egiteko aukera bakarra bide horretan ikusten baitzuten.

Neskame etorritako emakume horien kasuak dezente ziren kopuruan. Horren adibide da Donostian 1900. urtean egindako azterketa bat. Horren arabera, hirira neskame etorritako emakumeen %60k harremanak izaten zituzten etxeko nagusia-

**Arautzearen atzean badago ideia nagusi bat:
«Ondo antolatuta, gizonezkoen behar bortitzak
ase ditzake eta hain izugarriak diren
gaixotasun benereok ekidin daitezke»**

rekin eta prostituzioan zebiltzan emakumeen %27 aurretik neska-me lanetan aritutakoa zen.

BITARTEKARITZAN ARITZEN ZIRENAK

Bistan denez kasu gehiegitan ez zuen emakumeak erabakitzen noiz eta nola utzi birjintasuna. Horretan min handia egindakoa dira bitartekari lanetan aritzen ziren adineko emakumeak. «Normalean modu jakinean aritzen ziren. Tratua egiten zuten gizonezkoarekin, eta hark emakume birjina jakin bat eskatzen zien. Bitartekari lana egiten zuen emakumeak engainatuta eramaten zuen neskatoa, gizonezko hura maiteminduta zegoela edo ezkontzeko asmoa zuela esanez. Eta behin toki bakarti eta aparteko batera iritsitakoan, bakarrik uzten zuen gizonezkoarekin, babesik gabe eta galduta. Bortxaz harreman sexualak izatera behartzen zituen horretarako espresuki diru bat ordaindu zuen gizonezkoak. Dirua, noski, bitartekaria rentzat izaten zen. Eta egoera hartan, birjintasuna galduta, emakume askok jotzen zuen berriz bitartekari harengana laguntza eske, beren egoera berrian geratzen zitzairen bide bakarretako bat prostituzioa zelakoan». Halaxe jasotzen da liburuan.

Apaizen inguruan aritzen ziren prostituten kasu sonatuak ere jasotzen ditu Roqueroren liburuak. Harreman ezagunak ziren, epaiketara eramanez kasu askotan, baina beti emakumearen kaltetan eta apaizaren izena ahalik ondoen gordeaz.

Debekua eta zigorra ziren nagusi beraz. Prostituta asko eta asko izan ziren galeretara bidaliak. Izan ere, zigorrak norabide bakarra izan ohi zuen beti: emakumea.

ARAUZTEAREN LEHEN AHOTSAK

XIX. mendearen erdialdetik aurrera hasi ziren sumatzen prostituzioa arautzeko lehendabiziko pausoak, baina ez emakume horien egoera latza eta tamalgarrira samurtzeko helburuz, gaixotasunak, kutsatzeko arriskua eta osasun publikoan izan zezaketan eragina kontrolatzeko asmoz baizik.

«Arazoa emakumearen aurkako indarkeria legitimatuta dagoela da. Zerbitzu sexual baten truke ordaintzen duen gizonezkoak ez dauka bidea libre bortizkeriaz jokatzeko»

Behoko aldean, garai bateko prostituzioarekin lotutako irudiak. Batzuen esanetan, «munduko esklabotza modu zaharrena da». Beste batzuentzat, «munduko ofiziorik zaharrena». GAUR8



Bazen Donostian Justo Maria Zabala izeneko mediku sonatu bat, prostitutekin lan egiten ohitua zegoena eta haien lanbidea arautu behar zela ozen esan zuena. Hark proposatzen zuen osasun txartel bat izan zezatela, maiztasunez mediku azterketak izan zitizatela, non eta nola bizi ziren kontrolatzeko ahalegina egin zezatela... «Neurri horiek guztiek bezeroa zuten buruan, haren osasuna eta garbitasuna ziurtatzea. Prostitutek berme txartel bat izan zezatela, label moduko bat alegia. Ez zuen arrakastarik izan, inork gutxiak nahi zuelako prostituten zerrenda horretan agertu», esan du Roquerok.

Arautzearen aldeko joeraren atzean garai bateko «gaitz erdi» haren usaina zegoen. Beharrezkoa denez, arautu dezagun prostituzioa. «Ondo antolatuta, gizonen behar bortitzak asetzeko modua eman dezake eta hain izugarriak diren gaixotasun benereok ekidin daitezke». Ideia hori nahiko orokortua zegoen, eta, ondorioz, Euskal Herriko herri eta hirietan onartzen joan ziren araudiak oso antzekoak ziren toki guztietan.

MAILA DESBERDINAK

Bazen beharrak, ezbeharrak eta babesgabetasun egoera batek ekarritako prostituzioa. Eta bazen luxuzko prostituzioa, puntako bizitza maila eramateko aukera ematen zuena. Biak jarduera bera izanagatik, ez ziren begirada berdinarekin neurtzen. Bata tamalgarri ikusten zen, lotsagarri, ezkutuko. Bestea, distiratsu eta prestigio handiko. «Emakumea gauza bat balitz moduan hartu izan da beti. Eta prostituta bazen, are ezgauzago. Dirua zeukan gizonezkoarentzat maitale bat izatea, ordaintzen zuen prostituta bat izatea, prestigio keinu bat zen, kasik auto on bat eta etxe izugarri bat izatearen pareko», kontatu du Charo Roquerok.

Maila bateko eta besteko prostituten egoerak muturrekoak ziren alor batzuetan. 1914. urtean Irungo Udaleko Osasun Ikuskaritza batek hala deskribatzen du herrian zegoen prostituta etxe

bat: «Eraikin oso zahar batean dago, logelek sabai oso baxuak dituzte eta oso-oso txikiak dira. Aireak zikin usaina dauka eta kiratsa jasanezina da. Ez dauka komunik eta zikina lurrean eta altzarietan zabaltzen da». Prostituzio etxe hori ixteko agindua eman zuen Udalak. Berehala zabaldu zuen berriz jabeak, bizpahiru konponketa txiki egin ondoren eta berriz egoera oso tamalgarrian.

Beste muturrean dago garai bertsuan (1929. urtean) Julian Zugazagoitia idazleak bere testuetan egiten zituen Bilboko «tolerantzia etxeen» deskribapenak: «Giro alaia eta kezkarik gabea da abiada bizian aberastu den gizarte batean. Aberats berriek bazekiten nola dibertitu eta Bilboko aberatsen eta 'mantendutako' emakumeen arteko liskarrak nabarmenak dira; nork bitxi gehiago eta distiratsuago, nork etxe luxuzkoago... Aberats berrien garai honetan prostituta armada batek hartu ditu kaleak. Hasieran hiriko emakumeak eta, berehala, Frantziatik etorritakoak, diru berriaren usainera. 'Zuga' esaten zaie emakume frantsesei eta erabat aldatu dituzte bilbotarren gustu eta joera sexual zaharkituak».

PROSTITUZIOARI BEGIRA

Esaten da prostituzioa dela munduko esklabotza modurik zaharrena. Beste batzuen begietara, aldiz, munduko ofiziorik zaharrena da. Arautzearen eta abolizioaren artean dagoen labarrean mundu bat kabitzen da, lehen bezala orain prostituzioaren existentziarekin berarekin prostituten egoerarekin baino gehiago asaldatu ohi dena.

Charo Roqueroren ustez, «arazoa emakumearen aurkako indarkeria legitimatuta dagoela da. Zerbitzu sexual baten truke ordaintzen duen gizonezkoak ez dauka bidea libre bortizkeriaz jokatzeko eta nahi duen guztia egiteko prostituta horrekin. Eta arazoa da gizarteak hori normalizat jotzea. Jarrera horiek amorrarazi egiten naute, eta kezkarazi. Tartean ordainketa bat egoteak ez du bortizkeria justifikatzen».



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

📷 IKUSMIRA

ZER GUTXI IRAUTEN DUTEN UNE EDERRENEK!

Patata tortilla, prest. Ez ahaztu eguzkitara-ko krema. Ezta zahatoa ere, noski! Hartu du-zu bisera? Eta aulkiak? Horrenbeste denbo-ra prestaketa lanetan, zertarako eta, zaust!, tropela segundo erdian pasatzeko. Hori da, bederen, izan duzun sentipena; tropela, bi-zitzako gauza ederrenak bezalaxe, nahi bai-no lehenago pasa dela zure aurretik, hatz-mamiaz ukitzeko denbora besterik ez duzula izan. Agian horregatik ematen dugu horrenbeste denbora prestaketetan: iritsiko den sentipen horri ahal beste zuku atera-tzeko. amalur.artola@gaur8.info

Diru barik ezer egiterik ba al da?

Aspaldion konfiantza barik gabiltza guztiok; geure bizitzak guk geuk antolatu beharrean, beti zain ea zer etorriko den handik edo hemendik. Besteen esku utzi ditugu gure betebeharrak, eta, hori gutxi balitz bezala, ez dugunean ezer lortzen etsipena nagusitzen zaigu.

Oraindik ez gara ohartu zer-nolako gizarte-an bizi garen. Izan ere, egia bada ere lehen ia dena erakundeetatik antolatzen zela, berme hori galtzen ari da. Esaten digute diru gutxi dagoela hau edo bestea egiteko. Egia edo gezurra den jakin ez arren, mezua zuzena da: orain arteko dinamika amaitzera doa, erakundeak ez dira aurrerantzean gure babesle izango. Jasotako zerbitzuengatik ordaindu

beharra izango da kasu gehienetan, lehentasunak erakundeek markatuko dituztelarik.

Aisialdia ez da musu-truk aterako, are gutxiago oinarrizko zerbitzuak, kultura arloko eginkizunak edota osasun zerbitzuak. Egia esan, dirua esku gutxitan dago eta txarto erabili izan da. Eta oraindik dagoen gutxia, gutxi-gutxika desagertuko da; esan dezakegu, beraz, orain arte ohikoa izan den bezala ez dela gastatuko. Zerbitzu guztiak gutxitu dira, eta, hortaz ohartu ezean, gure bizitza antolatu ezinean aurkituko gara. “Ama-aita erakunde” sistema hura, badoa betiko piktara. Umezurtz geratuko gara.

Orain gutxi, herriko gazteen artean inkesta bat egin zen, jakiteko, besteak beste, nola

ikusten dituzten udal zerbitzuak, antolatzen diren ekintzak, zer aldatu behar den... Beraien iritziz, ezer gutxi antolatzen da erakundeetatik eta gutxiago gazteentzako; zerbitzu gabezia dago. Amaitzeko eta ondorio gisa, etorkizuna beraiena dela zioten gazteek.

Koituduak! Nire ustez, oso erratuta daude, gazteek ez dute egon behar erakundeen menpe. Gutxiago erakundeetatik etor daitezkeen diru partiden zain. Gazteek eurek antolatu behar dituzte beraien esparruak, eurek aldarrikatu behar dituzte beraien lehentasunak. Barka nazatela, zoritxarrez, etorkizuna ez da euren bakarriz izango, baizik eta biziko garen guztionak. Baina, halere, kezka bat sortzen zait: diru barik ezer egiterik ba al da? •

**Josu Imanol
Unanue**

ARTETERAPIA

Hitzen bidez adierazi ezin dena azaleratu eta barneratzearen artea

OSASUNA / amalur.artola@gaur8.info

Bidean zentroko areto nagusira sartzean hasten da bidaia. Aretoak berak eman dizkigu hemen gertatuko denaren pista batzuk: espazio zabala, kuxinak erdian, musika aparailua bazter batean, margoak, kartoizko kaxak... Goxo, kuxinetan esertzera gonbidatu gaitu Eleno Alkainek. Boro-bilean; berdinetik berdiner. Ez dugu elkar ezagutzen, baina, nolabait, badugu elkarren berri: taldera batu den orok barne bidaia egiteko nahia duela dakigu. Badakigu, baita ere, areto honek gertatzen dena areto honek geratzen dela.

Ea zer moduz gauden galdetu digu Elenok. Igarri diogu ez dela igogailuko "zer moduz?" horietako bat; benetan nola sentitzen garen azaltzera gonbidatu gaitu. Eta, horrekin kontsonantzian, inork ez du itxurakeriazko "ondo" hutsalik bota. Begiak biratu eta kanpora beharrean barrura begira jarrita datoz erantzunak. Horretara etorri garelako. Horregatik erabaki dugulako arteterapia tailerrean parte hartzea. Eta, espazio horretan, maskarak oinetako eta berokiekin batera geratzen direlako: sarrerako pertxeroan.

Baina, zer da arteterapia? Non du jatorria? Bideaneko saiora iritsi aurretik eman digu erantzuna Saioa Aginakok, Elenorekin batera arteterapia saioa proposatu eta gidatzen duen psikoterapeutak. Euren eskolako *expressive art therapy* izena duela esan digu eta, hura ulertzeko, XX. mende hasierara eramane gaitu: «Psikiatrikoetan zeuden pertsona askok marraztu egiten zutela edo topatzen zuten materialarekin, ogi-mamia edota komuneko papera adibidez, eskulturak egiten zituztela ikusita, zenbait psikiatra 'gaixo mental' gisa ezagutzen ziren gaixoen artelanak ikertzen hasi ziren. Mende erdialdera, Jean Dubuffet margolariak psikiatra horien lana ezagutu eta, ikusitakoarekin txundituta, *art brut* gisa ezagutzen den korrantea sortu zuen: nolabait, arte akademikoa arbuia eta gizartearen marjinetan dauden pertsonen artea goratzen du, gizartearen jokatzeko moduan sartu nahi ez duten edo sartuta ez dauden pertsonen artea». Korrante horri jarraiki, 60ko hamarkadan Paolo Knill Suitzako Eskolako musikoterapeutak eta Shaun McNiff AEBetako unibertsitate irakasleak arte adierazpenek gizakiarengan duten eraginarenean gaineen zuten interesa batuta sortu zuten *expressive art therapy* delakoa: «Arteaz aparte, oinarri teoriko bezala psikologia hartzen du barnean, batez ere humanista, baita filosofia fenomenologikoa eta artearen hezkuntza ere».

tearen marjinetan dauden pertsonen artea goratzen du, gizartearen jokatzeko moduan sartu nahi ez duten edo sartuta ez dauden pertsonen artea». Korrante horri jarraiki, 60ko hamarkadan Paolo Knill Suitzako Eskolako musikoterapeutak eta Shaun McNiff AEBetako unibertsitate irakasleak arte adierazpenek gizakiarengan duten eraginarenean gaineen zuten interesa batuta sortu zuten *expressive art therapy* delakoa: «Arteaz aparte, oinarri teoriko bezala psikologia hartzen du barnean, batez ere humanista, baita filosofia fenomenologikoa eta artearen hezkuntza ere».

Arteterapia mota ezberdinen barnean, eurek «transdiziplinarra» egiten dutela gaineratu du Elenok. «Batzuek dantza dute oinarri, besteek musika, arte plastikoak, antzerkia... Gu ez gara bakar batean oinarritzen, arte espresibo guztiak hartzen ditugu aintzat. Zergatik? Orain, hemen, musika hau entzutean, era batera mugituko naiz, irudi bat etorriko zait, auskalo noizkoa, sentipen bat, era bateko ukipenak izango ditut eta, horiek mahai gaineen jartzen baditugu, agian zureak eta nireak bat etorriko dira, edo agian bizipen zeharo ezberdinak izango ditugu. Musikarekin zerbait piztuko da,

Saioa Aginako eta Eleno Alkain, arteterapeutak. Besteak beste, Donostiako Bidean zentroan eskaintzen dituzte tailerrak.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS



baina egongo dira piztuko ez diren gauzak, horregatik iruditzen zitzaigun interesgarria espresio-bide ezberdinak erabiltzea. Saioa hastean espresio bat proposatzen dugu eta hortik beste batera goaz, ea zer gertatzen den ikusteko. Agian plastikarekin gaude, pasa gara mugimendura eta konturatu gara bietan gauza bera egin dugula: hori eguneroko bizitzara eramatean, zenbait gauzaz jabetzen gara».

Transdiziplinarra, beraz: diziplina batetik bestera igarotzen dena. Gaurko saioan, dantza jarri digute abiapuntu. Musika jarri eta gure gorputza sentitzera gonbidatu gaituzte Eleno eta Saioak. Eskuak lehendabizi. Zangoak gero. Musikak eskatzen digunaren arabera mugitzeko eskatu digute. Dantzatu ez; mugitu. Ez du estetikak agintzen. Besoak goratu, egin salto edo etzan lurrean eta hasi biraka. Zeharkatu horrela aretoa, baldin eta hori bada musikak eskatzen dizuna. «Orain, bilatu besteekiko harremana; gerturatu eta urrundu», eskatu digute. Eta hala aritu gara, elkar ukitu gabe, besteengana hurbiltzen, urruntzen, besteen bueltan. Elkarreragiten, hitzik gabe komunikatzen.

Komunikazioa. Hori baita, azken batean, artea: komunikatzeko, adierazteko bitartekoa. Barrutik kanporakoa, eta kanpotik barrurakoa. «Artearen bidez, ikusezina ikusgarri bihurtzen da -hasi da Saioa-, eta, behin ikusgarri egin dugula, gure barnetik irten den hori, guri buruz hitz egiten duen hori, ikusi egin dezakegu, galderak egin, ea zer esaten digun. Mugimendua ere jar diezaiokegu, eta horrek beste esparru sentsorial batera garamatza. Aurrean dugun guztia gurea denez, zerbait esaten digu guri buruz».

Arteterapiak, azken batean, autoezagutza bideratzen duela dio Elenok, eta, horretarako, «ikusezina ikusgarri bilakatzeko», berezkotasun edo naturaltasunean eragiten ahalegintzen dira. Hala azaldu du: «Egunean zehar egiten ditugun zenbait gauza, autoan martxak aldatzea adibidez, barneratuta ditugu, automatikoki egiten ditugu. Berezkotasun hori pizten denean

zenbait gauzaz ohartu egiten gara, kontzientzia hartzen dugu. Gero, norberak erabakiko du zer egingo duen horrekin, baina, behintzat, badakigu hor zer ger-tatzen den». Saioak gaineratu duenez, arteak naturaltasun ho-ri sustatzeko ahalmena du: «Ar-tearen prozesuan sartzen gare-nean pentsamendua kanpoan uzten dugu eta sena aktibatzen da. Agian unean ez gara hor aza-leratu denaz ohartu, baina bizi-takoa hor geratzen da eta, lehe-nago edo beranduago, eragina izango du gugan».

MUGAK MARRAZTEN

Bideaneko arteterapia saioan, artilezko hari gorria atera du Elenok. Lurrean paratu du, zu-zen, gela bitan erdibituz, mugak marraztuz. Edo hori uste ge-nuen: Elenok ez du mugarik sor-tu, gu gonbidatu gaitu mugak zehaztera. «Hautatu alde bat eta jarri aurrean duzuenaren pare-an. Itxi begiak. Biratu eta eman hiru pauso atzera. Orain, pen-tsatu: ze muga markatzen ditu-gu ezagutzen ez ditugunekin?». Horren arabera inguratu gara marra gorrira, begiak itxirik, eta zabaltzeko agindu digunean au-rrean dugunaren begiak iltzatu zaizkigu guretan. Bakoitzak sentitu duena, bakoitzaren ba-rruan geratu da. Gertuegi jarri gara agian, edo gertuago jarri nahi dugu; ezeroso sentitu gara, edo ez, begi horien atzean dago-enak erakarri egin gaitu. Bakoi-tzak egin du sentitu duenaren hausnarketa, saiatu da sentipen horiek dezifratzen, izena ema-ten, ordenatzen eta esanahiz hornitzen. Finean, bere izatea-ren, funtsaren zati bat gehiago ezagutzen. Ondokoekin harre-mantzeko dituen erak zalantzan jartzen, ezagutzen edo agian be-rresten. Hitz bat eskatu digu Ele-nok. Hitz bakar bat, aurren du-gunaren begien gertutasunak barruan eragin diguna deskriba-tzeko. Erantzunak, sentipenak bezain anitzak izan dira. Pertso-nak bezain anitzak.

Anitzak baitira, era berean, pertsonak arteterapia saiora ekartzen dituen arrazoi eta hel-buruak. «Askotan autoezagutza bera, besteetan zerbait zehatza-

**Antzerkia, dantza, arte plastikoak, idazketa...
Arteterapia tailerrean artearen dizi-plina
ezberdinak erabiltzen dituzte «ikusezina
den hori ikusgai bilakatzeko»**

**Parte hartzaileek saiora eramaten dituzten
arrazoi edo helburuak denetarikoak dira,
«autoezagutzatik hasi eta norberak oztopo bezala
sentitzen dituenei aurre egitera bitartekoak»**



Plastika, pintura, dantza... anitza da arteterapia. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

goa. Bizitzak jarri digun proba bat gainditu nahi izatea, norbe-rak oztopo bezala sentitu duen zerbaiti gaina hartzea, edo bel-dur, lotsa zein ezinei aurre egi-tea. Baita esperientzia berri bat bizitzea ere, bada ‘ea honek zer dakarkidan’ pentsamenduare-kin datorrenik ere», azaldu du Saioak.

«Pertsona bat, mundu bat», gaineratu du Elenok, irribarre zabala erakutsiz. Hala ere, nor-bere indibidualismoa atzean utzita, talde sentipena gailen-tzen da arteterapiako saioetako parte hartzaileen artean. Barne-an daramatena adierazteko ere-mu libre bezala ikusten dute Bi-deaneko aretoa. Badakite saioak irauten duen ordu eta erdian egiten, esaten, partekatzen eta sentitzen dena aretoan geratuko dela, handik irteten den bakarra norberak berekin eramatea hau-tatu duena dela. «Taldea, azke-nean, indibiduo bilakatzen da. Mugimendua du, dinamika bat sortu da. Guk, terapeuta bezala, jolasaren arauak soilik marka-tzen ditugu», hasi da Saioa. Ele-nok jarraitu dio: «Enkoadraketa jartzen dugu. Non gauden, nola lan egingo dugun, zer egingo dugun. Askotan parte hartzaile-ak elkarren artean ezezagunak dira eta taldea osatu egin behar

da. Eta taldea ez da jende asko egotea, taldea beste gauza bat da, talde barruan zaudela senti-tzea ere bada». Konfidentzialta-sunak eta konfiantzak ere ga-rrantzia handia dute: «Inportantea da errealtate ho-rren barnean bakoitzaren hel-buruak zeintzuk diren finkatzea eta hor hitz egiten dena hor ge-ratzen dela jakitea. Ez gara egu-neroko erosketez edo telebista saioez hitz egiten ari; barruko gauzez ari gara, sentimenduez, gertakizunez, zailtasunez, eder-tasunaz ere bai... Gauza oso per-tsonal eta intimoiez, agian gure gertukoen den pertsona horrek ere ezagutzen ez dituen kon-tuez. Eta horrekin guztiaz kontu handiz ibili behar da. Nik esaten dut jendeak partekatzen duen hori terapeutentzat opari bat dela, zerbait preziatua, eta kon-tu handiz zaindu behar da».

BARRUTIK KANPORAKO BIDEA

Mugak dira gaurko arteterapia saioko gaia. Harresiak. Babestu eta, aldi berean, isolatzen gai-tuztenak. Langak. Hesiak. Barre-rak. «Ikusten duzue hor atzeko material guztia?». Burua biratu eta egurrezko taulak, kartoizko kaxak, kuxinak eta koltxonetak ikusi ditugu. «Gaurko sormene-ko lana horiek erabilita norbere

MUNDUAN EZAGUNA DEN
TERAPIA EZAGUTARAZTEN

Euskal Herrian arteterapia ez da sobera ezaguna. Eleno Alkain eta Saioa Aginakok arteterapeuta gisa aritzeko formakuntza Bartzelonan jaso bazuten ere, euren eskola Suitzan dagoela diote. Herrialde horretan, munduko beste zenbaitetan bezala, arteterapia ezaguna da, badu gizartearen aitortza, eta, gainera, osasun sistema publikoan bertan ere txertatuta dago. «Ingalaterran, AEBetan, Suitzan, Herbehereetan... zabaldua dago. Zenbait lekutan, arteterapeutak ospitaleetako talde multidiziplinarretan erizain, psikiatra eta gainerako profesionalekin batera egiten du lan; artearen bidezko terapiari bestelako pisu bat ematen zaio», azaldu du Saioak. «Hemen ez gaude inola ere egoera berean. Badaude arlo ezberdinetan lan egiten duten arteterapeutak, baina ez aitortza maila horrekin eta modu integral horretan». Zentzu horretan, arteterapia ezagutarazte aldera ere lanean ari dira bi psikoterapeuta hauek, eta, maiatzean, lau orduko ikastaro trinkoa eskainiko dute: «Lau orduk ematen dutenerako ematen dute; helburua arteterapiara gerturatzea da, zer den ikustea eta zabaltzea».



barrera eraikitzea izango da». Besteekin –edo pertsona zehatz batekin– harremantzeko dugun eran pentsatzera eraman gaituzte. Mugak, ze punturaino diren onuragarriak, eta ze puntura arte egiten diguten kalte. Zer ematen diguten, eta zer kentzen diguten. Norberak eraiki du bere neurrira egindako barrera. Eta norberak atera ditu bere ondorioak. «Amaitu duzu?», galdetu du, banan-banan, goxo, Saioak. «Ba atzean sartu, paper zati hau hartu eta sentitzen duzuna idaztera gonbidatzen zaitut». Saioak ez du sekula agintzen: ez dira ordenak, proposamenak dira. Prozesu pertsonal horretan lagun eta gidari izateko baimena eskatzen du. Gure barreraren atzean gaude la, papera eta axota eskuan, Saioaren ahotsa entzuten dugu. «Zer sentitzen duzu? Zer iradokitzen dizu barrera horrek? Zer falta duzu? Zer behar duzu hobeto egoteko? Zer esan nahiko zenioke barrera horren beste aldean dagoen horri? Zer gertatzen da zure barruan?». Bata bestearen atzetik datoz galderak, proposamenak. Buruan bueltaka, ideiak, irudiak, bizipenak. Bularraldean, sentipenak, zurrumbiloa. Bertigoia ematen du paper zuriak, baina, konturatzera, horiek denak bildu eta axota paperaren kontra satzen hasi gara. Eta ari da irte-

ten. Bestela azaldu ezin denak hartu du kanporako bidea.

Izan ere, artea, espresibide gisa, hitzen bidez azaltzea zaila denari aterabidea emateko baliagarria dela uste du Elenok. «Mila arrazoiengatik, batzuei zaila egiten zaie hitzen bidez adieraztea eta, kasu honetan, arteterapiak ematen dizuna da era ezberdin batean adierazteko aukera».

Beraiei arteterapiak zer eman dien galdetuta, pentsakor geratu dira. Saioak hartu du hitza. Eran-tzuna egituratzen joan den neurrian sendotu zaio irribarrea: «Mundu bat zabaldu dit. Arteterapiak nire bi pasioak, artea eta psikologia, lotzeko aukera eman dit, baita besteei zerbait emateko eta horrekin lan egiteko aukera ere. Sortze prozesuak pertsonengan duen indarra eta norberak sortzen duenarekin lan egin daitekeela ikustea deskubri-

Artea barnean dagoen hori azaleratzeko bitarteko gisa erabiltzen da; estetikak, «polita» eta «itsusia» bezalako hitzek, ez dute lekurik tailer honetan.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Arteterapiak mundu bat zabaldu diola dio Saioak: «Sortze prozesuak pertsonarengan duen indarra eta norberak sortzen duenarekin lan egitea deskubrimendu bat izan da niretzat»

«Emozioak ikuspegi artistikotik lantzeak beste hizkuntza mota batera eramaten zaitu», azaldu du Elenok, eta zenbaitetan hitzen bidez agertu ezin dena adierazteko baliagarria dela dio

mendu bat izan da niretzat. Potentzial handia duen zerbait dela iruditzen zait». «Psikologia ikasi ostean Gestalt terapian sakondu nuen eta hor dezente egiten da lan emozioekin –hasi da Eleno–, baina emozioak ikuspegi artistiko batetik lantzeak beste hizkuntza mota batera eramaten zaitu, niretzat oso hurbila izan dena. Baita oso berria ere: artearen bitarteko adierazpide hori oso anestesiatua neukan. Ohartze bat eman da nigan, ez bakarrik intelektuala, baita artistikoa ere, eta konturatu naiz hizkuntza horrekin gauza askoz jabetzeko aukera dugula. Horrek ez du esan nahi zoriontsuagoa naizenik, baina, gutxienez, kontzientetagoa naiz».

Arteaz ari da, baina baita «denok barruan daramagun artista» deskubritzeaz ere. Gizarteari ezarritako estetika arauetatik harago doan artistaz: «Hemen ‘polita’ eta ‘itsusia’ edo ‘ondo’ eta ‘gaizki’ hitzek ez dute esanahirik. Hemen, artistak gara artea egiten dugulako eta artistak gara baita ere gure buruaren ezagutze prozesu hori egiten dugulako. Niri, pertsonalki, inportantea iruditzen zait nor garen jakite horretara hurbiltzea; zaila da, beti egongo garelako ‘nor naiz?’ zehazte horretan, baina hemen kontzientzia hori zabaltea lortzen dugu». «Baita gure buruaren arduradun izatea ere –jarraitu du Saioak–. ‘Zer gertatzen zait eta zer egingo dut horrekin?’ galdetzen diogu gure buruari. Zein den horrekiko, nire buruarekiko, dudan ardura».

KONPARTITZEA: HAUTU PERTSONALA

Bukatu da tailerra. Irribarreak dira nagusi. Inork esatekorik ez duenean amaitzen da saioa, denek esan nahi duten guztia, partekatu nahi dutena, askatu dute-nean. Eta, elkar agurtuta, itzuli gara sarrerara. Armairuan utzitako zapatak jantzi ditugu, baita esekilekuan zintzilikatu dugun berokia ere. Maskara... maskara ere hartu dugu. Baina, agian, pitzadura txiki bat sumatu diogu. Elenok esan bezala, bakoitzarena da hautua: norberak ikusiko du arteterapia saioan ikasitakotik zer eraman berarekin.

NAHI BESTE APLIKAZIO DITUEN HIZKUNTZA

Aplikazio ugari ditu arteterapiak, Saioa Aginako eta Eleno Alkain arteterapeuten hitzetan. Beraiek Donostiako Bidean zentroan aritzen dira arteterapia tailerrak ematen, baita osasun mentalaren alorrean ere, Caritas elkartearen menpeko Gizaide eguneko zentroan: «Gaixoeak emozioak azaleratzeko, sentitzeko eta adierazteko zailtasunak izaten dituztela ikusten dugu eta arteterapiaren bidez hori landu daiteke. Emozioetan jartzen dugu atentzioa, hau egitean nola sentitzen naizen ikusi, besteak hori esaten didanean nola sentitzen naizen, horrela mugitzeak zer sorrazten didan... Eta, agian, ondo sentiarazten nauena errepikatu egingo dut», azaldu du Saioak.

Arteterapia hitzen bidez adierazi ezin dena komunikatzeko baliagarria dela gaineratu du Elenok: «Hizkuntzarena soilik ez den adierazkortasun bat dago. Kontuan hartu behar dugu oro har oso medikatuta egoten den jendea dela, eta, hala, arteterapia gorputza sentitzeko, esnatzeko baliagarria da. Baita kontaktuarekin zailtasunak dituztenekin lan egiteko ere, kontaktu hori bideratzeko jolas edo dinamika asko baitaude. Adibidez, pilota bat batera ukitzen badugu gure eskuek ia-ia elkar ukitzen dute; baina atentzioa ez dut ukipenean, pilotan baizik».

Arteterapia haurrekin, haurdun dauden emakumeekin, guraso eta haurrekin batera... era askotara erabil daitekeela diote. «Askok soilik haurrentzat dela pentsatzen dute; feedback hori jasotzen dugu guk. Baina denentzat izan daiteke onuragarria, eta onena da ez duela inolako mugarik», amaitu du Elenok.



Gorka Zozaia
Kimikaria

Bizi-itxaropena

Zientziaren inguruko azken berriren bat ekartzearen, agerkari digitalen artean eman dut denbora aste honetan. Berririk garrantzitsuena, zalantzarik gabe, AEBetako Gobernuaren apustua den Brain proiektua bere lehen fruituak ematen hasia dela da (“Garuna, garenaren iluna” artikuluan azaltzen nuenez, proiektu honek ohiko ikerketa partzialak gainditu nahi ditu eta garun zati eta neuronen funtzionamendua aztertu ordez garun osoaren funtzionamendua aztertzen hastea du xede). Elhuyarren aldizkari digitalean (www.zientzia.net) ederki jasotzen da berri hau euskaraz eta ez dut uste txoko honetatik ekarpen gehiagorik egiten ahal dudarik. Horregatik, berri bila jarraitu dut, orrialde eta berrien artean, honoko azpittituluarekin topo egin dudan arte: “*Un 50% de los niños nacidos en 2014 podrían cumplir 100 años*”.

Berehala etorri zaizkit burura berriki jaiotako inguruko haurrak, baita aurtent bertan jaiotakoak ere, eta gehiago irakurtzen murgildu naiz. “Adinduen jendar-te baterantz” tituludun artikulua honek azaltzen duenez, espainiar Estatuan aurtent jaiotako haurrek aukera asko dituzte, apika %50, 106 urte betetzera heltzeko, eta 2050. urterako bizi-itxaropena 89 urtekoa izango omen da, egungoa baino zazpi urte handiagoa. Hitzok, James Vaupel demografo estatubatuarrari hartu dizkio “El Mundo” egunkariak, hain zuzen ere, Banco Santander Fundazioak “*¿Seremos inmortales?*” izenarekin antolaturiko konferentzian parte hartu duela baliatuz. Detalleok deigarriak zaizkidalako jaso ditut hemen. Vaupelen arabera, ez dago frogatuta gizakion bizi-itxaropenak mugarik duenik, eta, bere aburuz, azken urteotako bilakaerak zahartzaroa atzeratzen ari dela uzten du agerian. Herrialde garatuetan, gorabeherak gorabehera, hamarkadako bi urte eta erdi luzatzen ari da bizi-itxaropena Vaupelen hitzetan, eta, etorkizunera begira, gehiago biziko garenez, zera gehitzen du: «Hori bai, 75 urtera arte lan egin beharko dugu».

Susmoa hasieratik nuen usaindua eta ez nintzen batere harritu artikulua irakurtzen jarrita. Zientzia interes zehatzak defendatzeko argudio gisa erabili izan da

maiz: beltzak zuriak baino tentelagoak direla frogatzeko, emakumeen garuna gizonena baino txikiagoa dela esateko, heteronormatik kanpo daudenek garunean ez dakit zer ezberdina eta ustezko gaixotasun bat duten tesia elikatzeko... Orain, luze biziko garela-eta, bizitza laborala luzatzeko argudio gisa ondo datoz halako mezuak. Gainera, migrazioaren fenomeno ere barne hartzen du irakurketa demografikoak eta oso ondo gelditzen da Europako mugetako hesietako sarraski humanoa justifikatzeko. Zientziak, bere bata zuriarekin, dena zurrizko balio du, Milgramek ederki erakutsi zigun bezala.

Dena dela, zientzia interes batzuen mesede erabiltzea ez da okerrera. Finen, jarduera zientifikoa ezagutza zehatz baten gainean dagoen interesaren ondotik heltzen baita. Okerrera ezagutzarako bidea laburtzearen sarri zientzia eskasa egiten dela da: datu abaniko txikiak edota itsukeria puntu batekin. Susmoa dut bizi-itxaropenaz ari diren zientzialari hauek ez diotela, aipatzen duten arren, nahikoa arreta jartzen krisiaren harira,

baina baita aurretik ere, ematen ari den herritarren bizi-baldintzen okertzeari.

Hain zuzen ere, Nekane Juradoren hitzaldi batean parte hartzeko aukera izan nuen pasa den astean bertan, eta ez zitzaidan zentzu horretan zalantzarik gelditu. Emakumea eta pobrezia ardatz hartuta, ederki erakutsi zuen krisiaren aitzakiapean herritarren lan indarra esplotatzeko martxan den mekanismoa, eta horren ondorioak gaur-gaurkoz uki garriak direla salatu zuen. Antza, aitortu nahi ez den garrantzia dute egun suizidioek gurean, eta krisiaren ondorioz depresioa bezalako gaitz psikikoak ugaritu egin dira, ondorioz droga legal ezberdinen kontsumoa disparatu egin delarik dagoeneko. Goseak, gaur, 60.000 ahotik gora zenbatzen ditu EAEn soilik.

Bizi-itxaropena luza liteke agian gaur egungo teknologia eta pilulekin, eta zalantzarik ez dut herritarrek luzeago bizitzea bultzatuko dutela. Nire zalantza da herritarrok luze bizitzea ala, beste barik, bizitzea ez ote den bilatu behar duguna. Eta bide horretan, itxaropenik ba ote den bizitzeko... •



Aurtent jaiotako haurretatik asko 100 urte betetzera irits daitezkeela dio ikerketa batek.

GAUR8

{ koaderno } Kattalin Miner

Bidaiaariaren pribilegioak

Opor garai hauetan, oraindik oporretara joateko ahalmena mantentzen dutenek, hala egin ohi dute. Batzuk Saloura edo Torreviejara, beste euskaldun batzuk Jakara, Kantabriara edo Cabo de Gata, eta akaso beste batzuk Palestinara, Perura, Guatemala edo Mexikora.

Baina oporretara joatea eta bidaiatzea, ordea, ez omen dira gauza bera, edo hori azaldu didate behintzat. Izan ere, “opor” kontzeptuak, lasaitasuna, deskantsua, alferkeria, mojitoak, eta akaso hondartza esan nahi ditu. “Bidaiatu” kontzeptuak, esperientzia, herrialde ezberdinak, bizipenak, «ze pasada den hura», motxilak, «aber eske super ezberdina da, ezin dut honekin alderatu», eta halakoak esan nahi ditu.

Nik aurten oporrak egin nahi nituen eta bidaiatzen amaitu dut. Opor bidaiatuak edo bidaia oportua, esperientzia eta herrialde ezberdinak, hondartza, mojito eta zerbezarekin nahasten dituen horietakoa. Motxila eta hondartzara zuzenean ematen duten hotelak konpartituz. Hamabi orduko autobusa eta herrialde barneko abioia. Indigenak bisitatu eta «*me permite el honor de poder servirle*» esaten dizuten lekuetan egotea. Karitatea errefusatu baina umeei pulserak erosten, eta dirua ematen, eta janaria ematen ere bai; «*¿cómo se dice amiga en tu idioma?*»; penagarria, akaso.

Hala genbiltzala, bidean brigadista batek (oraindik halakorik han geratzen zenik ere!) esan zidan, tonto samar, motxileroa ez duela motxila batek egiten, hau da, motxileroa ez dela motxila bat daramana. Esan nion uste nuela horraino iristen zela nire adimena, eta ez nuela inongo intentziorik motxileroa izateko, ez dela inondik inora nire bidaiari idealaren figura («brigadista ez den bezala», esan nahi izan nion, baina bada oraindik errespetatzen dudarik).

Kontua da, hura bezala, beste asko ere topatu ditugula bidean, euskaldunak ere bai. Topatu garen horietan, gure burua zuritu, eskusatu, eta ondoren kritikatzeari ekin diogula, denok, jakinik inorena ez dela bidaiatzeko modu “onena”, baina denok jakinda baita ere, ez dagoela modu hain “on” hori. Eta gogoratzen dut behin lagun

batek oso serio esan zidala bidaiatzea sobrebaloratuta dagoela. Ez dela deskantsatzen, estresantea eta inbasiboa dela, eta batez ere egoista, kasik mapa batean «herrialde bat gutxiago ezagutzeko» apuntatzeko balio diguna. Ezagutzea ez dela eskubidea, kasik pribilegioa eta batzuetan kapritxoa dela. Norabait goazenean, gugatik egiten dugula, «esperientzia» horiek bizitzeko. Orain pixka bat ulertu dut zer esan nahi zuen. Eta beste nire lagun batek esaten duenari lotuta, «agian onartu behar dugu, ezin dugula dena ezagutu».

Eta bidaia edo opor edo dena delako hauetan asko pentsatu dut (dugu finean) honen inguruan. Zenbateraino ginen zuri, turista, pribilegiadun. Zenbateraino fresa, zenbateraino progre, edo jator, edo batzuetan europar oso zuriak. Birpentsatu behar izan dugu zenbat dugun hemen, eta horrek han zenbat izatea esan nahi duen (eta alderantziz). Zenbat izan ote dugun espainoletik eta

Gure burua zuritu, eskusatu, eta ondoren kritikatzeari ekin diogu, jakinik inorena ez dela bidaiatzeko modu «onena», baina denok jakinda baita ere, ez dagoela modu hain «on» hori

zenbat euskaldunetik. Batzuetan aldi berean ere. Zenbateraino esan dugun gu ez garela espainol, gu garela *vascas*! Eta zenbateraino ikusi dugun berdin-berdin zaiela, ez dakitela non dagoen, eta ezberdintasuna azalduta ere, «*ah, del norte de España!*» esaten digutela.

Honekin guztiarekin, delako egoismo bidaiatu honetatik, ez dakit ondo zertarako balio izan didan bidaiak eta pentsatzen darrat. Pixka bat esperientzia bizitzeko, pixka bat, agian, herrialde berri bat ezagutzeko, morenoa ere hartu dut, eta fondoan –azalean beste–, pribilegiadun zarela ohartzeak sortzen duen sentsazio deserosoa ere bizitzeko. Eta horregatik uste dut, oporretako azken egunetan bueltatu nahi izaten dugula pixkatxo bat etxera; gure pribilegioak dastatzeko batetik, eta dastatzen ditugun artean hain pribilegio ez direla sentitzeko bestetik. •

«Obesitatearen eraginez, gure umeen bizi itxaropena gurea baino laburragoa da jada»

Biologian doktorea eta EHUKo Farmazia Fakultateko Nutrizio eta Bromatologia irakaslea da Idoia Labaien (Iruñea, 1968). Europako nerabeen osasun kardiobaskularra ikertzea helburu duen Helena (Healthy Lifestyle in Europe by Nutrition in Adolescence) proiektuan parte hartu du eta, zehazki, lipidoek nerabeen dietan duten eragina aztertu du. Nerabeen dietako gantz-portzentajea sabelaldeko gizentasunarekin –potentzialki arriskutsuena– estuki lotuta dagoela frogatu du, baita jarduera fisikoak ez duela lotura horretan eragiten ere.

Europako Helena proiektuan parte hartu duzu. Zertan datza zure ikerketak?

Europako Batzordeak finantzatutako proiektua da Helena eta, bertan, bederatzi herrialdek hartu zuten parte. Helburua nerabeen elikadura eta ariketa fisikorako ohiturak zeintzuk ziren ikustea zen eta, bide batez, horiekin lotzen ziren arrisku kardiobaskularrak, obesitatearen prebalentzia eta abar aztertzea. Ikerketa sakonagoak ere egin ziren, genetikako determinazioak adibidez. Eta, noski, horretan guztian gizarteak eta bereziki gurasoek duten eragina ere iker-tu zen, maila sozioekonomikoaren aldaketak elikadura ohituretan eragiten ote duen edo ez... Halako kontuak.

Ikerketa zabala oso.

Hala da, bai. Guztira 13 eta 18 urte bitarteko 3.500 nerabek baino gehiagok hartu zuten parte. Hori bai, denak hiritarrak, ikerketa batez ere eskoletan egin zelako.

Atentzioa eman digun datuetako bat da Europako nerabeen %16k duela obesitatea.

Zehazki, gainpisua %30ek du eta obesitatea %15-16k. Iparraldeko eta hegoaldeko nerabeen

artean, gainera, ezberdintasun handiak daude: Espainian, Grezian eta Italian kopuru horiek altuagoak dira. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) urteak daramatza epidemiaz hitz egiten eta arrisku gehien dutenak Europa hegoaldean daudela esaten, eta gure lana hipotesi hori baieztatzea izan da: teknika eta metodologia berberak erabiliz egin dira neurketak eta datuek baieztatu egin dute hipotesia.

Iparraldeko datuak hegoaldekoak baino hobekien direla esan duzu. Zer gertatzen da Mediterraneoko dieta famatuarekin?

Egia da dieta mediterraneoak eragin onuragarriak dauzkala osasunean. Mediterraneo inguruan dauden herrialdeetako hel-duen kasuan, eta batez ere adineko pertsonen artean, arrisku kardiobaskularra baxuagoa da. Baina gure ume eta nerabeek ez dute dieta mediterranea jarraitzen: izugarritzko aldaketa egon da elikadura ohituretan eta egun jarraitzen duten dieta oso gantzatsua da.

Batez ere sabelaldeko gantz metaketaren arriskuak aipatu zenituzten. Zergatik?

Ez genuen soilik hegoaldean kilokaloria kopuru altuagoa hartzen ote zen begiratu, dietaren kalitatea ere aztertu genuen. Lipido kopurua ikertzean, ikusi genuen hegoaldeko dietan gantz kopurua altuagoa zela eta hori gantz adiposoaren metaketarekin lotzen da; metaketa hori sabelaldean gertatzen den ere begiratu genuen, hori arriskutsuagoa delako osasunerako.

Zergatik da arriskutsuagoa?

Gantza sabelaldean kokatzeak esan nahi du erraiak gantzez inguratuta daudela eta horrek arrisku kardiobaskularra handitzen du: kolesterola, glukosarekiko intolerantzia eta presio arteriala handitzen dira, eta, gainpisurik egon ez arren, gantzaren metaketa sabelaldean ematen bada, arriskuak handitu egiten dira. Gure helburua ea gantz metaketa horiek ematen ziren ikustea zen eta baietz ikusi

genuen. Beste ondorio bat ere ateratu genuen: ariketa fisikoak ez du dietako lipidoen eragina sabeleko gantz metaketan konpentsatzen. Ariketa fisikoa egitea osasungarria da, noski, laguntzen du arrisku kardiobaskularrak gutxitzen, baina kasu zehatz horretan elikaduraren kalitatea zaindu behar da.

Kaloria kopuruaz harago joan behar da beraz.

Kaloria kopurua, egia esan, konpentsa daiteke ariketa fisikoarekin, balantze energetikoa edo energiaren oreka lor dezakegu, baina ez lipidoen oreka. Horretarako beste zerbait egin behar da: dieta zaindu.

Zein izango litzateke Europako nerabe baten dieta estandarra?

Fruta eta barazkien kontsumoa izugarri jaitsi da, batez ere Mediterraneo herrialdeetan, eta bitxia da, gu garelako horiek ekoizten ditugunak: iparraldeko herriek guri erosten dizkigute eta han gehiago kontsumitzen dituzte! Janari prestatu asko jaten dira, eta horietan gantz kantitatea oso altua da, baita gatzarena ere: sodioaren ekarpena ere oso altua dela ikusi dugu. Horrekin lotuta, ikusi dugu zuntzaren kontsumoa jaitsi dela, baita karbohidratoena ere, eta badakigu zuntza beharrezkoa dela gure dietan, etorkizunean etor daitezkeen konplikazio askorekin lotuta dagoelako.

Lehen «epidemia» hitza erabili duzu. Adituek urteak daramatzate obesitatea «XXI. mendeko epidemia» dela esaten. Hala us-te duzu? Badu larritasun hori?

Bai, eta, gainera, etengabe ari da handitzen. Gero eta haur gehiago ditugu gainpisuarekin eta obesitate horiek, gainera, gero eta larriagoak dira. Haurren artean bi motako diabete eta hipertentsio arterial kasuak agertzen ari dira, baita hiperkolesterolemia altuak ere. Horiek lehen ez ziren existitzen.

Elikadurak gaixotzen gaitu...

Ba bai, elikadurak ateak zabal-tzen ditu. Begira, garapen bide-

IDOIA
LABAIEN

BIOLOGIAN DOKTOREA

Helena proiektu europarraren barnean

nerabeen obesitatea ikertu du Idoia

Labaien doktoreak. Gizentasunaz gehiegi

hitz egin eta gutxiegi egiten dela dio.

amalur.artola@gaur8.info

an dauden nazioetan, adibidez, gainpisua eta obesitatea handitzen ari dira. Orduan, alde bate-tik, elikadura mundu guztiari iristen zaionean hilkortasun ta-sa jaisten da, baina, bestalde, elikaduraren kalitatea txarra denez, gainpisuaren eta obesi-tatearen zifrak handitzen dira eta bi malnutrizio egoera ematen dira batera: desnutrizioa eta obesitatea. Horren eraginez, gure umeak hamar urte gutxia-go biziko dira, bizi-itxaropena jaitsi egingo da.

Hain zuzen, orain gutxi esan zuen OMEk obesitatea bizi-itxaropenean eragingo zuela. Etorkizunera begira mintzatu zen, baina badirudi hasi garela ondorio horiek ikusten, ezta?

Diabetea izugarri igo da, zenbait mugitzeko arazoak dituzte, minak sorbaldan, belaunetan, oinetan... Bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena, jada ikusten ari gara biak ari direla murrizten.

Eta, horren aurrean, zer?

Ba, horren aurrean... estrategia gutxi.

Ez gara larritasunaz ohartzen edo ez dugu jabetu nahi?

Ba, begira, OMEk 2004ko argitalpen batean jada ohartarazi zuen obesitatearen eraginez umeen artean krisialdi bat zegoela, eta oraindik ez da estrategia adostu. Argazkiak askotan ateratzen dira, diagnosiak egiten dira, urtero zifra horiek handitu direla esaten dugu, baina, gero, ez dugu gehiegi egiten. Ez da nahikoa pediatra zerbait egiten ahalegintzea, umearen inguruan dauden guztiek, gizar-teak, laguntzen ez badu. Ez dugu ezer lortuko hezkuntza programak garatzen ez badira eta osasun publikoak parte hartzen ez badu.

Etxera etorrira, adibidez, azken bost urteotan euskal haurren obesitatea %5etik %16,8ra igo dela jakin berri dugu.

Bai, datu izugarria da. Eta zerbait egiten ez badugu igotzen jarraituko du, gure haurrak gero eta sedentarioagoak direlako eta euren elikadura kalitatea txarra.



Argazkiak: Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

IBILBIDEA

Biologian doktorea eta EHUKo Farmazia fakultateko Nutrizio eta Bromatologia irakaslea da. Europako nerabeen dieta eta osasun kardiobaskularra ikergai dituen Helena proiektuan hartu du parte. Berriki, «Clinical Nutrition» aldizkarian argitaratu ditu bere ikerketaren emaitzak. Helbide elektronikoa: idoia.labayen@ehu.es.



Debagoienan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen ohiturak ikertzen ari dira, gero horren arabera ekintza estrategikoak abiatzeko: gosari osasuntsuak, prebentzio kanpainak, jolas didaktikoak... Hori da bidea?

Bai, noski: arazoak ditugula onartu eta denon artean zerbait egitean dago gakoa. Gasteizen ere orain hasiko gara ikerketa proiektu batekin: Osasun Ministerioak finantzatuko du proiektua eta Osakidetza, Osatek, Tecnalia eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) hartuko dute parte.

Zer-nolako proiektua da Gasteizen garatuko duzuen hori?

Esku-hartze zuzena da: jarduera fisikoarekin eta nutrizioaren inguruko hezkuntzarekin gainpisua jaitea lortzen dugun ikusi nahi dugu. Batez ere gibe-leko gantzarekin zer gertatzen den ikertuko dugu, badirudielako

hori dela diabetearen arrazoia. Sedentismoa aldatzen ere saiatuko gara. Eskoletan heziketa fisikoaren orduak jaitsi egin dira; haur batzuek eskolaz kanpoko jardueretan hartzen dute parte, baina gainpisua eta obesitatea dutenek gehienetan ez dute horrelakoetan parte hartzen. Orduan, gutxienez astean hiru aldiz ariketa fisikoa egin deza-ten ahaleginduko gara.

Noiz hasiko duzue proiektua?

Programa irailean jarriko da martxan eta, orain, Gasteizko eskola ezberdinekin harremanetan jartzen ari gara, baita pediatrekin ere. Gurasoek ere baime-na eman beharko dute; gainera, inplikatura ere egon beharko dira. Guztira 200 ume inguruk hartuko dute parte eta hiru urteko proiektua izango da: esfortzu probak egingo dizkiegu ze intentsitatean ari daitezkeen ikusteko, ariketa fisikoa oso programatua egongo da eta pultso-

metroa eramango dute... Intentsitatea ahal dugun guztia handituko dugu, badakigulako intentsitate altuko ariketa fisikoak oso eraginkorrak direla arrisku kardiobaskularra murrizteko. Elikadura ere era ezberdin ugartan landuko dugu. Proba asko dira, talde txikietan ariko gara eta horrek denbora eskatzen du.

Anbizio handiko proiektua dirudi. Hemen egin da aurretiaz halakorik?

Ez, halakorik ez. Estatu mailan, azterketa horren sakonekin egiten den lehena izango da. Erresonantziak, dex-a, gorputz konposizioa... aztertuko ditugu ea gantz kopurua jaitsi eta masa muskularra handitzea lortzen dugun ikusteko. Alor ezberdinetako adituekin ariko gara elkarlanean: heziketa fisikoan adituak, psikologoak, nutrizionistak... Autoestimua ere lan egin nahi dugu, alderdi psikofektiboa ere garrantzi-

tsua delako. Gainpisua duten umeak oso estresatuta izan ohi dira gehienetan.

Gainpisuak estresa ere eragin dezake beraz?

Bai, normalean ez direlako oso onartuak sentitzen euren inguruan, horrek autoestimuan eragiten die, eskola jazarpena gehiago jasaten dute... Eta hori ere landu nahi dugu.

Hezkuntza programa integrala prestatu duzuela dirudi.

Ba bai, egia da arlo ezberdinetako jende askok parte hartuko duela proiektu honetan, baina ezinbestekoa dela uste dut. Dieta bakarrik zaintzen badugu edo ariketa fisikoarekin soilik lan egiten badugu, ez dugu ezer lortuko: denok batera lan egin eta alor guztiak tratatu behar dira.

Amerikako zenbait herrialdetan obesitatearen aurkako neurriak hartzen ari dira. Mexikon freskagarrien gaineko zergak handitu dituzte eta badira publizitateari mugak ezarri dizkioten herriak ere. Europak bide hori jarraitu beharko luke?

Zerbait egin behar da, bai. Horregatik esaten nuen lehen laguntza behar dugula, gizarteak ere lanketa bat egin behar duela. Adibidez, goizean telebista jartzen badugu konturatuko gara marrazki bizidunen tartean aurretik prestatutako janarien iragarki asko sartzen dituztela, baita azukre gehiegi daramaten zerealenak ere. Gehienetan oparitxoak dituzte eta haurrentzat erakargarriak dira. Hori kontrolatu beharko litzateke.

Bada beste faktore bat ere: janari prestatuak oso merkeak dira. Orain gutxi OMEk ohartarazi zuen Espainian krisialdiarekin kontuz ibili behar dela, obesitatearen prebalentzia handitzea eragingo duelako.

Alegia, baliabide gutxiago duenak arrisku gehiago duela.

Hori da. Janari prestatuak erostea fruta, barazkiak eta arraina erostea baino merkeagoa eta errazagoa da. Eta dagoeneko ikusten ari gara bi muturrak;



desnutrizioa eta obesitatea. Orduan, beste alderdiek ere parte hartu beharko dute, ez delako osasun arazo soil bat.

Baita gizarteak ere, batik bat gurasoek.

Bai, baina gurasoek ulertu behar dute zer den hau eta nola lagun dezaketen. Baita administrazioek ere. Europa iparraldean, Herbehereetan adibidez, hanburgesen eta halakoen zergak handitu behar dituzte, AEBetako estatu batzuetan errazioen tamainak legez kontrolatzen dituzte pizza zatiak gero eta handiagoak zirelako... Freskagarriek ere lehen 200 ml zituzten eta orain 300 ml dituzte. Hori guztia kontrolatu egin beharko litzateke.

«Denok dakigu ariketa fisikoak eta dieta osasuntsuak eragin onuragarriak dituela; orain, berriz, prebentzioa tratamendua baino merkeagoa dela frogatu behar dugu, bestela ez dut uste laguntzarik jasoko dugunik»

Gauza asko daude egiteke...

Ez da ezer egiten eta! Arazoak ditugula esaten da bakar-bakarrik. Adibidez, NAOS estrategia [Nutriziorako, jarduera fisikorako eta obesitatearen prebentziorako estrategia espainola] onartu zen, baina hark egiten duen bakarra zer egin beharko genukeen zehaztea da. Eta gero ez da ezer egiten.

Praktikara pasa behar.

Noski. Hori da guk nahi duguna: halako programa batek funtzionatzen duela baieztatzea. Baita zenbateko kostua duen ikustaraztea eta kostu hori ospitaletan gastatzen dena baino baxuagoa dela frogatzea ere. Badakigu prebentzioa merkeagoa dela eta,

azkenean, horrekin konbentzitu beharko ditugu. Nik uste dut mundu guztiak dakiela ariketa fisikoak eta nutrizio osasuntsuak osasunean eragin onuragarriak dituela, eta orain frogatu beharko dugu horiek lantzea, gainera, merkeagoa ere badela. Bestela, ez dut uste laguntzarik jasoko dugunik.

Publizitatea aipatu duzu lehen. Ze indar du honetan guztian?

Nik uste egun salaketa jarritz gero iragarkia kentzen dutela. Baina norbaitek salaketa jarri behar du, ez da ofizioz egiten. Eta iragarki ezegoki asko daude, oso erakargarriak, bikain diseinutakoak. Filmetan ere haurrak janari horien inguruan ikusten ditugu etengabe, eta atsegina da umeentzat; gauza asko daude honekin lotuta.

Argazki bat: ezer egingo ez bagenu, ze egoera izango genuke hemendik hamar-hogei urtera?

Urtero %1 handitzen da obesitatea. Beraz, handitzen jarraituko du. Egun, helduen %50ek dute gainpisua. Kontuan hartu behar dugu helduei beranduago heldu zaiela obesitatea; umetan izan dezakeen eragina askoz okerragoa da, gehiago eta azkarrago konplikatzen baita.

Beraz, funtsezkoa izango da ohitura osasungarriak haurtzarotik sustatzea?

Bai, behin helduarora helduta zaila da ohiturak aldatzea. Maiz, gaixorik gaudenean epe motzeko tratamenduren bat jarraitzen dugu eta, gero, normalean, lehengorara itzultzen gara. Nutrizioan lan egin zuen lehenetarikoa AEBetan jardunagatik asturiarra zen Francisco Grande Covian medikua izan zen, eta, berak esaten zenez, errazagoa da erlijioz aldatzea elikadura ohiturak aldatzea baino. Eta egia zioen. Bizimodu osasuntsuan hezten haurtzarotik hasi beharko genuke eta gurasoek ere inplikatu beharko lukete, umeek imitazioz ikasten dutelako, eta, ziurrenik, gurasoek gaizki jaten badute, haurrak ere gaizki jango duelako, eta gurasoek ariketa fisikorik egiten ez badute, umeak ere ez duelako egingo.



Nagusitan

Iker Barandiaran

Gatazka politikoari bukaera emateko alde batetik hainbeste ahalegin egiten direnean, guztion artean bizikidetzazabalagoa eta gardenagoa landu behar dugun honetan, indarkeria betiko desagertu eta horren aitortza egin beharra behin eta berriro eskatzen den honetan, errealitateak bestelakorik erakusten digu, ogiaren beste erdia, alegia.

Orain dela bi aste Txagorritxuko Ospitalera, Gasteizera, jo nuen semearekin. Gaur egun hain ohikoa den moduan, kanpoko jatorria zuen mediku batek artatu gintuen, ondo. Hego Amerikako herrialde batekoa zela esan zidan eta Euskal He-

rrian bizitzen hamazazpi urte zeramatzala. Halako batean, umeari arreta gehiago eskaini nahian, honako galderak egin zizkion: «Zer, nagusitan, medikua izan nahi duzu? Suhiltzailea akaso? Edo polizia?». Ez zen txantxetan ari, bere aburuz azken hori lanbide arrunta zen, eta, agian –zeinek daki–, harro egoteko modukoa.

Umeak entzungor egin zion eta gelatxoan zegoen hirugarrena, neu, aho bete hortz gelditu nintzen. Hamazazpi urte bertan bizi bai, baina non eta zer demonstre bizi izan du ni baino gazteagoa izan zitekeen mediku hark? AEBetako filmetan oinarritzen zuen gu guztion bizitza? Non, filmetan ez bada, uka daiteke polizia bai-

no lanbide nazkagarriagorik ez dagoela? Ez nion ezer esan, baina pena itzela eman zidan halakorik Gasteizen entzuteak.

Hamarkadatan mota guztietako poliziek eta haien agintariek (izan) duten in-punitatearekin amaitzea lehentasuna da, eta haiek egindako zein egiten jarraitzen duten mina aitortu behar dute berandu baino lehen. Hori gabe ez dago inongo gatazkaren konponbiderik, ezta egunerokotasunean herritar orok beharrezkoa dugun justiziarik. Eta, bitartean, kanpoan zein hemen jaioetako horiek nola arraio egiten dute poliziak alor guztietan gupidagabe ematen duen egurra ez ikusteko; eta, ondorioz, justifikatzeko? •

LIZARTZAKO ESKOLA

Eraikin berria eskatzen ari dira egungoak ez dituelako gutxieneko erosotasun eta segurtasun neurriak asetzen

Ez dute beste errealtaterik ezagutu eta horregatik Lizartzako eta Oresako haurrek eskolarako bidean beste ikasleek adinako nagi edota poztasuna erakusten dute. Iritsitakoan, ordea, ikastetxean ez dute gehienek duten erosotasuna topatzen; egunero-egunero jolas eta liburu artean sinesgaitzak diren egoerei egin behar izaten diete aurre.

1966. urtean eraiki zen Lizartzako Juan XXIII Herri Eskolak gaur egun 81 haur jasotzen ditu bere ikasgeletan, orain dela hamahiru urte eskas baino hiru aldiz gehiago. Datu erabat pozgarri eta itxaropentsua, baina, arazo bilakatu da, haur kopurua horrenbeste igo bada ere, ikastetxearen tamaina ez baita modu berean handitu.

Urteak daramatzate ikastetxeko haurren gurasoek egoera «tamalgarri» hau salatzen. «Orain artean instituzioei euren lana egiten utzi diegu, baina, inolako emaitzarik izan ez denez, protesta kalera ateratzea erabaki dugu», azaldu dute Leire Gordo eta Itziar Saenz de Ojer gurasoek.

SEGURTASUNIK EZ

Ohartarazi duten moduan, azken urteetan espazio gabezia da ikastetxeak duen arazo larriena. Nolabaiteko irtenbidea emateko, orain sei urte aurrefabrikatutako etxola bat jarri zuten eraikin nagusiaren ondoan, eta «behin-behineko neurria zena behin betiko» bilakatu zaie. Gordo eta Saenz de Ojerren haurrak Lizartzako eskolan ari dira ikasturte honetan ikasten eta gertutik gertura ezagutzen dute, be-

 **GIZARTEA** / maider.eizmendi@gaur8.info

Ez da atzo goizeko eskaera. Orain hamar urte eskola berria agindu zieten, baina oraindik ere zain daude Lizartzan. Orduan 27 ikasle zeuden ikasgeletan, eta, egun, berriz, 81. Gurasoak buru-belarri hasi dira lanean, euren haurrek dutena baino ikastetxe eroso eta seguruago bat merezi dutelako.

raz, txikiek bizi duten egoera. «Haurrak eta irakasleak oso deseroso egoten dira, neguan hotz handia eta uda gerturatu ahala beroa pasatzen dutelako. Gure semeek normaltasun osoz jertse lodiak eskatzen dituzte neguan, eta mauka motzeko kamisetak lehen beroak hasi bezain laster», jakinarazi dute. Zarata ere handia izaten dute, euri zaparra bat nahikoa baita gelako martxa zapuzteko.

Ikastetxeko edozein zirrikitu erabili behar izaten dute egunerokoan erabiltzen dituzten edota bota nahi ez dituzten materialak gordetzeko: «Pentsa, fotokopiagailua komunean dago, baita mantalen esekitokiak ere!». Zentimetro guztiguztiei probetxu ateratzen ikasi dute, ikasgelak trasteleku bihurtzeraino.

Erosotasunean ez ezik, haurren heziketan eta erakusten zaizkien baloreetan ere leku faltak eragina duela uste dute Gordok eta Saenz de Ojerrek. «Liburutegirik ez dute eta bigelen artean kokatutako pasilloan batuta dituzte liburuak. Nola erakutsi haurrei liburuekiko errespetua izaten eskolan bertan haiek egoki gorde eta tratatzeko lekurik ere ez badute?», galdegiten dute.

Arazo ugari izanagatik, leku faltak eragindako segurtasun gabezia da gaur egun gurasoak gehien arduratzen dituen: «Eskaileratan ez dago baranda-

Eraikin berria eskatzeko elkarretaratzeak egiten hasi dira Lizartzan.
GAUR8



rik eta horman eskua jarrita jaitsi behar izaten dituzte eskailerok txikienek horrek dakarren arriskuarekin». Era berean, ikastetxeko hainbat gune eskolatik kanpo kokatuta dituzte, psikomotrizitate edo musika gela kasu: «Horrek haurrak ikastetxetik atera eta bidea gurutzatzera behartzen ditu, egin eguraldi ona edo egin txarra, dakarren arriskuarekin». Errepideaz bestalde dago, halaber, modu bitxian funtzionatzen duen jangela bera ere; izan ere,

Ikastetxean behar besteko lekurik ez dutenez, psikomotrizitatearekin edota musikarekin lotutako hainbat jarduera errepideaz bestalde dauden geletan egin behar izaten dituzte

«Nik uste dut urtero ez bada bi urtez behin behintzat bidali dutela Eusko Jaurlaritzatik teknikariren bat egoera aztertzerara, eta jakin badakite egoera jasangaitza dela»

txanda bakarrean jateko guztiak sartzen ez direnez, bazkariak bi txandatan egin behar izaten dituzte.

MAKINA BAT TXOSTEN TEKNIKO

Gabezia hauek guztiak ez dituzte soilik guraso, haur eta irakasleek nabarmendu, dagoeneko makina bat txosten tekniko egin baitira azken urteotan eskolaren egoeraren inguruan. «Orain hamar urte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak onartu zuen Lizartzan ikastetxe berri bat behar genuela, eta proiektua bera ere onartu zuen», azaldu dute. «Nik uste dut urtero ez bada bi urtez behin behintzat bidali dutela teknikariren bat egoera aztertzerara –jarraitu du Saenz de Ojerrek–, eta jakin badakite egoera jasangaitza dela; ez da bat-batean guri sortu zaigun kapritxo bat».

Egindako promesak bete ditzaten baino ez diete eskatzen, beraz, erakundeei, eta horregatik ari dira elkarretaratzeak egiten astero-astero ikastetxearen atarian. Guraso gisa ez ezik herritar gisa ere batzen dira eska-

era honetara Gordo eta Saenz de Ojer, eskola txikiak herrietako arimak direla sinetsita daude eta: «Herri txikiak bizirik mantentzeko funtsezkoak dira eskola hauek; haurrak bertatik ateratzen badira, herriaren bizia bukatzen da». Orokorrean, eskola txikietan baliabide onak dituztela nabarmentzen dute, eta, zentzu horretan, Lizartza-koa, Alkizakoarekin batera, salbuespenak dira. «Urte askoan alboratuta egon dira eskola txikiak, baina azken urteotan duten garrantzia aitortu zaie eta baliabide alorrean egoera ona dute oro har».

LAKUAN BILERA

Aipatutako guztia aldarrikatzeko hurrengo aukera apirilaren 29an izango dute, Hezkuntza Saialarekin bilera bat izango dute-eta. «Itxaropenik ez dugu galdu nahi, baina egia da urteak daramatzagula eskola berria eraikitzeko hondeamakinak herrian noiz ikusiko zain», azaldu dute. Urratsak ematen direla ikusi nahi dute eta datoren ikasturtean jada ezinezkoa izango bada ere, 2015eko aurrekontuetan Lizartzako eskola berria eraikitzeko aurrekontu-saila gordetzea.

Oraingoan behin betikoak izango diren hitzekin irten nahi dute bileratik. Iaz ere egon ziren Lakuan ikastetxeko eta Orexa eta Lizartzako udaletako ordezkariak, «baina oraindik egoera berean jarraitzen dugu». Aldarrikapena nola egituratu erabakitzeko, guraso elkartetik batzorde bat sortu dute, «eskola berriaren eskaera» gai bakar duena. Bertan erabakitzen dituzte aurrerantzean emango dituzten pausuak: «Zehazteko dago zer egingo dugun, jakin badakigu baina ez garela besoak gurutzatuta gertuko: daukaguna baino eskola hobea merezi dugu».

Abiatu dituzten ekintzen artean sinadura bilketa dago. Hasiera batean espero zutena baino sostengu handiagoa ari dira lortzen gainera: «1.800 sinadura batu ditugu jada, eta, kontuan hartuta 81 haur eta 47 familia garela, oso gustura gaude».



Edozein txokori probetxu ateratzera behartuta daude Lizartzako eskolan. Goian, liburutegi gisa erabiltzen duten gunea: bi gelen arteko pasilloa. Erdian, fotokopiak egiteko makina, komunean kokatuta. Behean, azkenik, mantalen esekilekuak, hauek ere komunaren txoko batean kokatuta. GAUR8



Maite Larburu biolin jotzaile eta kantaria bere jaioterrian, Hernanin, udaletxeko plazan.

Idoia ZABALETA / ARGAZKI PRESS

infraganti

MAITE LARBURU

Biolina izan du bidaide. Txikitatik eskutik joan dira Maite Larburu eta bere musika tresna kutuna. Amsterdamen bizi da, baina maleta eginda du beti. Musikak bizi du eta pribilegiatua sentitzen da, nahiz nomada izateak bere ajeak ere badituen. Neighbor taldea sortu du orain, bere hitzei Josh Cheatham melodiak josiz.

Munduan zehar batetik bestera dabil Maite Larburu. Ez du askotan izaten Euskal Herri-
ra etortzeko aukerarik eta gus-
tura hartu du bidaia. Erdi opor,
erdi lanean –hiru kontzertu es-
kaini dituzte– harrapatu genuen
Hernanin.

Josh Cheatham (Seattle, 1974) eta Maite Larbururen (Hernani, 1979) batura da Neighbor taldea. Bizilagunak dira Amsterdamen –hortik taldearen izena– eta antzinako musika jotzen dute hainbat orkestra eta ganbera taldeetan. Hori tarte batez alboratu, eta, elkarri eskua emanda, abentura berrian murgildu dira. Amets egin dute, jolaserako denbora ere hartu dute; etxetik urru-

ti egotearen gazi-gozoa kontatu dute, eta, beste ezeren gainetik, gozatu egin dute. Eta nabari zaie hau bien abestiei.

Baina bidea ez da erraza izan. Hainbat langaren gainetik salto egin behar izan du Larburuk. Batetik, biolina utzi eta ahotsa du erreminta nagusia Neighbor taldean. Urte luzez tiraderan gordeta geratu diren testuek ez bezala, azken abestiek argia ikusi

dute. Eta gainera, publikoaren aurrean kantuak defendatu ditu. Txikitatik idatzi du, beretzat edo lagunentzat, baina proiektu honekin bertigorik sentitu al duen galdetuta, erantzuna baiezkoa da. «Orain gainditu dut, baina oso gogorra egin zitzaidan», aitortu du.

Ez da lehen aldia foku-argia gainean sentitzen duena. Izan ere, Asier Altunak “Zela Trovke” film laburraren protagonista bihurtu zuen. Amsterdam Baroque Society taldeko beste kideekin batera Varsoviako Irratirako grabazio batean gertatutakoa dakar gogora zinema zuzendariak.

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia irabazi berri duen lana tarteko, hainbat galdara sortu zitzaizkion hernaniarri. «‘Jada gertatu den zerbait grabatzeak zein zentzu du?’, pentsatu nuen. Egin aurretik pentsatu nuen gure ganbera taldea izango zuela ardatz, baina ni nintzen istorioaren lokarria. Behin eginda zegoela, nire kezkei buelta eman nien. ‘Ni naiz, baina ez naiz ni’, pentsatu nuen.

Hor agertzen dena Asierrek nigan ikusi duen pertsonaia da, ez naiz ni. Kantuekin ere gauza bera. Letretan bereziki ni naiz, baina ez naiz ni... Gainera, entzuleek beren interpretazio propioa egitea oso ondo dago», azaldu du.

Ondo gogoan du “Ura patrikan” (Gaztelupeko Hotsak) diskoa grabatu ez grabatu, zalantza-
ti zebilela, bizitako une berezia. «Oso lagun ona dudana Txekiako biolin jotzaile eta kantari bati nire zalantzak kontatu nizkion. Kantu bat entzutenean uzteko eskatu zidan. ‘Nun zare’ entzun eta negarrez hasi zen. ‘Hau argitaratu egin behar duzu. Zu musikaria zara. Lehenengo zuregatik egin behar duzu, eta, horrez gain, zuk egiten duzunaz gozatzeko aukera eskaini behar diozulako entzuleari’, esan zidan».

Orkestra eta ganbera taldeetako lan tresnak utzi –Chethamek viola da gamba eta Larburuk biolina– eta atzera egin dute salto. Estatubatuarrek aspaldiko lagunari, gitarrari, heldu dio, Ekialdeko beste hainbat tresnekin batera, eta hernaniarra kan-

tari hasi da. Haurtzarora joan da, larburutarren etxean ohikoa izan baita beti abestea.

Erronka eta jolasa, biak da Neighbor. «Ateratzen zitzaiguna egin genuen, pentsatu gabe... Urte asko eman ditugu geure buruak kritikatzan eta juzgatzan. 'Hau ondo egin dut, beste hau gaizki'... Musika klasikoan beharrezkoa da kritika puntu bat ikasteko eta kanon batzueta- ra iristeko, baina di-da, ateratzen zena egin genuen. 'Elkarri ipurdia erakusten ara gara'. esaten genuen geure artean», dio.

Pribilegiatua sentitzen da musikatik eta musikarako bizitzegatik. Konplize berezia aurkitu du gainera bidean, Josh Cheat- ham. «Nik beste norbait behar nuen, bakarrik ezin nuen. Gu ere harritu egin ginen hasieran, kantuak sortzen hasi ginenean. Konexioa bazegoen, elkar ondo ulertzen dugu jotzen ari garenean, baina hortik bide hau egite- ra...», aitortu du, irribarretsua.

Sormenerako grina barru-barruan darama Larburuk. «Etxe- an ez daukat telebistarik eta zai- la egiten zait geldirik egotea. Idazten, marrazten edo biolina jotzen aritzen naiz», esan du.

Hamar urte daramatza etxetik kanpo. Herbeheretako egonaldia uste baino gehiago luzatu da. «Ez nuen sekula pentsatuko hainbeste urtez egongo nintze- nik, bizpahiru asko jota».

Herrimina islatzen da Maite Larbururen hitzetan. «Harria, papera, guraizea» kantuan atze- rriaren gazi-gozoa ageri dira. «Gozoa da; bazoaz eta hor gera- tu dena ez dut ikusten. Baina baita gazia ere, ikusten ez duzu- na batzuetan faltan duzu. Gai- nera, gogorra da eguneroko errutina bat ez edukitzea, beti batetik bestera ibiltzea».

Amsterdamen izadia ere fal- tan duela igartzen zaio kantue- tan. «Natura badago baina dena oso artifiziala da, itsasoari ken- dutako lurra da. Basoak ere oso zainduta daude».

Euskal Herrian arnasten zuen musika giroarekin nekatuta, beste irakasle batzuk eta beste musika giro baten bila abiatu zen Amsterdamera. Gustura de- la bistan den arren, ez du etxera

itzultzea baztertu. «Nik nire la- na hemen egin ahal izatea nahi- ko nuke, hango kultur baliabide- ak hemen edukitzea. Baina ikasi du dena ezin dudala eduki; han hangoa, eta hemen hemengoa», dio.

Amak eskusoinua jotzea nahi zuen, baina, azkenean, ez daki nola, biolinarekin hasi zen. «Vi- valdiren 'Lau urtaroak' kasetea zegoen etxean eta ez dakit hark eraginik izan zuen...».

MUSIKAREN IRAGANKORTASUNA

Zerk lotzen ote du musikara? «Zerbait dauka beste ezerk ez daukana. Musika, idaztea eta margotzea, denak dira espresio- bideak. Baina musikak badu zerbait berezia. Etorri bezain pronto joan egin da, ja ez da bueltatuko. Iragankortasunak, zentzumen guztiekin hor egon behar horrek, berezi egiten du. Noski, musika grabatu eta on- doren entzun dezakezu, baina musikariaren ikuspuntutik, musika eginda gelditzen da. Musika idatz dezakezu, baina, jotzen ez baduzu, ez da existi- tzen; jo egin behar duzu unereren batean», argitu du.

Gogoan du amarekin haserre- tu eta gehiago ez jotzea erabaki- tzen zuela. «Baina orduak pasa eta azkenean kaxa ireki eta jo egiten nuen. Haserre hura, jo- tzen, pasa egiten zitzaidan. Ezin nuen esplikatu... 'Zer da senti- tzen dudan hau?', nioen nireki- ko. Ume batek nola esplikatu... Zerbait bazegoen azkenean, beti, horretara bueltarazten nindue- na», adierazi du.

Bere musika ibilbidean bi ira- kasle izan dira erabakigarriak. «Nire lehenengo irakaslea, Eduardo Lasaleta, aingerua izan

«Musika, idaztea eta margotzea, denak dira espresiobideak. Baina musikak badu zerbait berezia. Etorri bezain pronto joan egin da, ja ez da bueltatuko»

«Amarekin haserretu eta gehiago ez jotzea era- bakitzen nuen. Baina orduak pasa eta azkenean kaxa ireki eta jo egiten nuen. Haserre hura, jotzen, pasa egiten zitzaidan»

zen niretzat. Asko lagundu nin- duen. Iaz hil zen. Madrilgoa zen, Euskal Herriko Orkestra Sinfoni- koan jotzen zuen eta Hernanin klaseak ematen zituen. Amari esan zion erraztasuna neukala».

Musika klasikoa ikasi zuten bere ezagun gehienek orkestra- ren batean jotzen zuten eta be- rak ere hori pentsatzen zuen. Baina hori aldatuz joan zen. Herbeheretan beste leiho bat ireki zitzaion. Han Kees Koel- mans ezagutu zuen, Larbururen musika ibilbidean bigarren ira- kasle erabakigarria. «Hara ani- moz nahiko makal iritsi nin- tzen, negatibo. 'Jo', esan zidan, 'jo, jo... gaizki edo ondo ari zaren pentsatu gabe'. Bigarren ainge- rua izan zen niretzat».

Hark hurbildu zuen antzinako musikara. «Herbeheretan nen- goenez –han sortu zen antzina- ko musikaren mugimendua– probatzea pentsatu nuen. Berak beti esaten zidan: 'Zu ez zara or- kestrako musikaria. Ez zaitut ikusten egunero orkestra bate- an, jende berarekin urtea joan eta urtea etorri, entseatzen. Fre- lance moduan hobeto molda- tuko zara'. Nik ez nekien zer zen ere, ez nuen inor ezagutzen. Agian sortzaileegia naiz orkes- trari lotua egoteko», esan du.

Bidea malkartsua izan da. «Le- henengo irakaslea eta azkena oso onak izan ziren, baina tarte- an oso esperientzia txarrak izan nituen Donostiako Kontserbato- rioan. Lagun asko egin nituen eta asko ikasi nuen, baina ira- kasleekin oso gaizki pasa nuen. Gogorra izan zen», aitortu du.

«Niretzat irakasle ona da per- tsona batengan bere berezitasu- na ikusteko gaitasuna duena eta pertsona horrek hori gara dezan lan egiten duena. Eta hori oso zaila da. Irakasle askorekin be- raiek nahi dutena egin behar duzu, baina zu beste pertsona bat zara...», jarraitu du Larburuk.

Antzinako musikaren bidea musika klasikoa erabat utzi ga- be hartu zuen. «Ez nekien zer gertatuko zen, baina horrela etorri dira gauzak. Proiektu ba- tek bestea ekarri zuen», dio.

Herbeheretan eta Belgikan aritzen da gehienbat lanean. Tarteka, Alemanian eta Fran-

tzian. Agendak bateratu ezinda ibiltzen da. «Aurretik zaila da la- nez nola ibiliko naizen jakitea baiezkoa edo ezezkoa esaterako- an», azaldu du hernaniarrak.

ATZERRIAN, ERRENKA

Hiru pisuko etxe handi batean bizi da Amsterdamen, beste sei lagunekin. «Ez da etxea parteka- tzea, komunitate baten parte ga- ra. 8oko hamarkadan emakume talde batek okupatu zuen eta au- rretik polizia etxea izan zen. Her- beheretan hamarkada hartan mugimendu handia egon zen eta iazko urtea arte okupatzea legala zen. Etxe huts batera sartuz gero ezin zintuzten bidali. Alokairua ordaintzen dugu, baina guk geuk erabakitzen dugu nor datorren bertara bizitzera. Gu gara etxea- ren 'jabeak', nolabait».

Atzerrian bizitzea errenka ibiltzearekin alderatzen du. «Hanka lurrean non jarri jakin ezinda zabiltza. Zure burua za- lantzan jartzen duzu. Zergatik egin ditut orain arte gauzak beti horrela? Azkenean ohiturak di- rela konturatzen zara», dio.

Etxetik urrun, ezezagunen ar- tean egoteak badu abantailarik, hala ere. «Zerotik hasten zara. Inork ez daki zein zaren... ez zai- tu juzgatzen zarenagatik. Bat- batean hiri batean zaude eta or- dura arte janzkeragatik egiten duzun sailkapenean ez du enka- jatzen jendeak. Ondo dago».

Idazten jarraitzen du. «Orain ere jolasa, baina desberdina. Besteek agian bai, baina nik ez dut espektatibarik eduki nahi; ez dut presiorik sentitzen».

Japonian izan ondoren orain biran dabil Amsterdam Baroque Orkestrako kideekin Amster- dam, Oviedo, Valentzia, Paris, Lyon eta Budapesten zehar.

Norbaitek pentsa lezake male- ta egiten ohituko zela, baina ez. «Maleta egitea ez zait batere gustatzen», kontatu digu. Ez da aitorpen bakarra. «Bitxia da, as- ko kostatzen zait leku berrietara moldatzea. Egun pare bat behar ditut», esan du. Baina ordurako maleta berriz egin behar. Beste hiri bat izaten du zain, beste en- tzule batzuk. •

xole.aramendi@gaur8.info

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Uxagarria

Osasunaren Mundu Erakundearen datuen arabera, urtero malariak jota 650.000 pertsona hiltzen dira eta 250 milioi lagunek dute gaixotasun larri hau. Suitzako Neuchâtel unibertsitateko zientzialari talde batek malaria transmititzen duen euliaren aurrean babes-teko uxagarri bat garatu du, aurretik haren portaera aztertuta. 80 landare aztertuta, eraginkorra den uxagarri bat garatu dute, eta, nabarmendu dutenez, ez du ez pertsonen osasuna ez ingurugiroa kaltetzen.

> Ruanda

Aste honetan bete dira hogeitaz urte Ruandako genozidio beldurgarria hasi zenetik. Ehun egunetan 800.000 lagun hil zituzten eta Ruandako biztanleria %20 eta %40 artean murriztu zen, batik bat tutsiek hutuen kontra burututako hilketen ondorioz. Urteurrenak Ruanda eta Estatu frantsesaren arteko harreman eskasak mahai gainean jarri ditu. Ruandako presidentek Parisek gatazkan parte hartze zuzena izan zuela berretsi du. Gobernu frantsesak adierazpen horiek gaitzetsi ditu.

> Hegazkina

Desagertu eta hilabete pasa denean, MH370 hegazkinaren arrastoak topatzeko saiakerak ez dute inolako emaitzarik eman oraindik ere. Senitarteko edota lagunak galdu dituzten pertsonak ez dute hegazkinaren kaxa beltzak seinaleren bat bidal dezan itxaropenik galtzen. Adierazi dutenez, erreskate taldeak hiru soinu arrasto ari dira aztertzen, horietako bat Australiako Perth hiritik 2.000 kilometrora, sakonera handiko gune batean. Hainbat itsasontzi eta hegazkin bidali dituzte bertara.

> Ostrak

Azken urteetan Estatu frantseseko kostaldetan hazitako ostrak asko hil egiten dira, espeziearen etorkizuna arriskuan jartzearaino. Egoerari aurre egiteko Europako ikerlari hainbat Bivalife proiektuan ari dira lanean. Helburua, ostrak hiltzen dituen patogeno ezezagunak identifikatzea eta neutralizatzea da. «Ostrak hiru edo lau urte behar dituzte hazteko. Azken batean hazteko jarritako ostren %10 baino ez ditugu saltzen», azaldu du Gerard Viaud ostrak hazleak.

> Datuak

Komunikazio enpresek jasotako europarren datuak bi urtez gordetzea oinarritzko eskubideen aurkakoa da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak erabaki berri duenez. Justiziak balio gabetutako zuzentarau baten arabera, komunikazio enpresak datu pertsonalak jasotzera behartuta zeuden, ostean estatuetako autoritateen esku jartzeko. Zuzentaraua 2006an jarri zen martxan, Madril eta Londresko erasoen ostean. Orain Europar Batasunak testua aldatu beharko du, baita estatuek euren arauak ere.



KUTXATEKA.COM

BI BEGIAK ZERURANTZ ZUZENDUTA

1965. urtera garamatza irudiak. Veneziako San Marcos plaza izan zitekeen, baina ez, Donostiako udaletxea da. Zer den opor usainean ibiltzea... Eguneroko joan-etorrian oharkabea pasatzen zaizkigun makina bat txoko, kale izkina eta eraikin, bat-batean beste magia batekin ikusten ditugu. Aldarte onean sentitzea bezalakorik ez dago begirada bera aldatzeko. **Paco MARIN. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA.**

Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria



Gaztetxoak, Internet eta lege urratzeak

Egungo gaztetxoak teknologien aroan jaio ziren eta teknologiek hazi eta hezten dira. Teknologiekin dira ume, gaztetxo eta bilakutuko dira heldu. Beraz,

teknologien erabilera egokirako irizpide arrazionalik ez dutenean ere, teknologiek bizi eta interaktuatzeko dute. Eta premisa horren gainean, gero eta ohikoagoak dira teknologien erabilera desegokiak, erasoak eta delituak.

Erabilera desegokia gaztetxo batek bere kalterako soilik egiten duen erabilera gisa defini daiteke. Izan teknologiei denbora gehiegi eskaintzen dielako (nahi eta nornahirekin dagoela ere), edota bere bizitza pertsonala deskribatzen duten testu, argazki eta bideoak Interneten argitaratzen dituelako.

Erasoak beste gaztetxo bat ere inplikatzen du. *Cyberbulling*-ak honako ezaugarri hauek ditu: denboran irautean duen erasoak da; erasoak ez du izaera sexualeko elementurik barnebiltzen; erasotzailea eta erasotakoa adin bertsukoak dira eta aurrez kontaktua dute (mundu fisikoan); eta erasoak gauzatze bitartekoa teknologia da (telefono mugikorrek edo smartphoneak, sare sozialak eta edukien zabalkunderako plataformak, oro har).

Cyberbulling-ak mota ezberdinetako erasoak barnebiltzen ditu. Esaterako, sare sozialen bitartez gaztetxo batek beste gaztetxo bat iraintzea. Irain hori publikoa da, erasotakoaz gain beste ehunka pertsonak ikus dezakete eta, zenbait kasutan, erasotakoa anonimatuan mantentzen da eta erasotako gaztetxoaren integritate fisikoan eta psikikoan eragin zuzena bezain larria izan dezake. Beste adibide oso ohiko bat nortasunaren ordezkatzeko da, hau da, gaztetxo batek beste gaztetxo baten izenean edukia argitaratzea. Adibide bat sare sozialetakoa izan daiteke, non gaztetxo batek beste gaztetxo baten izenean kontu bat sortzen duen eta bera balitz bezala jarduten duen. Argazkiak igoz, mezuak idatziz, irainduz edota nahi duena eginez. Hori guztia, noski, beste gaztetxo guztiek jakin gabe.

Nortasunaren ordezkatzeko, gaur egun, delitua izan daiteke edo ez. Delitua da, adibidez, beste gaztetxo baten kontuan sartu (nolabait erabiltzaile-izena eta pasahitza lortuta) eta bere eduki pertsonaletara sarrera izatea. Baina profil edo kontu bat sortzea, erasotakoaren izena erabiliz baina bestelako informazioz erantsi gabe (argazki bat, adibidez), ez da delitua. Kasu horretan sare sozialaren arduradunei idatzi eta kontu hori ezabatzeko eskatzea da egin daitekeen gauza bakarra. Kontrara, eraso edo ordezkatu den gaztetxoaren datu pertsonalak erabiltzeak (aipatu argazkia, adibidez), norberaren irudiaren gaineko eskubidea urratzea dakar eta delitua da (kasuaren arabera, delitu penala ere bai).

Baina teknologien gaineko legeria hutsunez josia dago. Badira legeak islatzen ez diren kasuak. Adibidez. Beste gaztetxo baten izenean kontu edo profil bat sortzeko, normalean, posta elektronikoko helbide bat eman behar-

ko da, sortu den profila edo kontua aktibatzeke. Posta elektronikoko horrek, erasotzailearena izan beharko du, bestela, printzipioz, ez baitago modurik kontua aktibatzeke. Baina ohikoa da ere, gaztetxoaren ezjakintasun osotik, kontu edo profil bat sortzen saiatzea, erasotakoaren posta elektronikoko helbidea emanaz. Hortaz, berez erasoak jasan duen pertsonak berak jasoko du aktibazioak mezua eta erasotakoak mezu horren aurrean duen jarreraren arabera, kontu hori sortzea lortuko da edo prozesua bertan behera geratzen da. Kasu honetan, berez, erasotakoa bera izan daiteke, nahi gabe, bere nortasuna ordezkatzeko helburuarekin sortutako kontua aktibatzen duena eta, hortaz, erasoari bide ematen diona. Baina legeak hutsune handi bat du kasu honetan.

Teknologien eta gaztetxoaren arteko binomioan, hutsune asko daude: legalak, kasu asko ez direlako islatzen; eta heziketakoak, gaztetxoek teknologien erabilera egoki bat egiteko irizpideak behar dituztelako (etxetik eta eskolatik). •



Gaur egun gaztetxoak teknologiek hazi eta hezten dira. THINKSTOCK

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

Herriaren etorkizun eta ereduaren gaineko gogoetari ekarpena

EUSKAL HERRIA

Por un nuevo nacionalismo,
vasquismo y navarrismo

«Liburu honetan Euskal Herriari buruz hitz egiten denean, euskal politikagintzari norabide aldaketa emateaz hitz egiten da. Azken batean, nazio bat eraikitzeaz, nortasun propioa eta erakunde eta ordezkari partekatuak izango dituen Euskal Herria izeneko izate hori eraikitzeaz.»

Jesús Eguiguren
Presidente del PSE-EE

Gaur eta bihar
GARArekin salgai
11,95€



GARA Eztabaidarako
guneak irekitzen

